

TOKIKOM begitu

2025eko maiatzaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.eus

450

Itzulia Women lasterketearen bigarren etapeak Igorren izango dau helmugea

Maiatzaren 17an izango da eta Lemoa eta Lamindaotik be pasauko da. 19 taldetako 114 txirrindularik hartuko dabe parte, World Tour taldekoak, tartean. Arratiako Ziklista Elkartea arduratuko da segurtasuna bermatzeaz. **19. orrialdea**



Areatza Musik & Beer hilaren 30 eta 31n

Euskal Herriko eta nazinoarteko talde ezagunek joko dabe.

Amann & The Wayward Sons, Little Odetta, The Cinelli Brothers, Datcha Mandala, Dirty Deep, Bad Touch, Jason Kane & The Jive, Arnau and The Honky Tonk Losers, Zalomon Grass eta Burning taldeek osotuten dabe kartela eta Euskal Herriko garagardao artisaua edateko aukerea egongo da.

Gastronomiak eta artisautza azokeak be izango dabe lekutxoia jaialdian. Bezperan, hilaren 29an, Garena jatetxean, garagardao eta janari mari-dajea egingo da. **10. eta 11. orrialdeak**



Heldu da Euskaraldia



Maiatzaren 15etik 25era, Elkar mugituz egingo dugu lemapean, Euskaraldia, euskerearen aldeko ariketa masiboa egingo da Euskal Herrian. Arratia, Ubide eta Zeberion, hasierako ekitaldiak, amaierakoak, jaiak edo-eta ikuskizunak, besteak beste prestatu ditue jentuek ohiturak aldatu eta euskera gehiago egin dagian. **8. orrialdea**

ZEANURI

Baserri giroa izango da nagusi San Isidro jaietan

Baserriko produktuak, ganadu azokda eta idi-probez gainera, kalejirak, eromeria eta umeentzako jolasak be ez dira faltauko, lau eguneko jai eigtarauan. Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokea zapatuan izango da hilak 17. **6. orrialdea**

DIMA

Jentilak Diman, maiatzaren 31n

Izaki mitologikoz betetako iluntze-gaua izango da. Ekitaldia Baltzolan hasiko da 18:30ean eta Indusin amaitu 21:00ak aldera. Ostein, Akelarrea eta txitxi-burduntzia egongo dira. Baltzolar joateko autobusak egongo dira eskoletatik eta gauean, Indusitik Dimako plazara bueltetako be egongo dira autobusok. **20. orrialdea**

ARTEA

Pentsamentu dekoloniala eta burujabetza landuko dabe adituek Artean

Arteko Herriko Bentak *Pentsamentu dekoloniala eta burujabetza(k)* izeneko jardunaldiak prestatu ditu hilaren 23, 24 eta 25erako. Holan, zapatu arrastian hasita eta domeka goizera arte, gaiaren inguruko berbaldi, mahai-inguru eta eztabaidak egongo dira, adituen eskutik. Han egongo dira, beste batzuen artean, Mario Zubiaga, Amanda Verron, Mari Luz Esteban, Idurre Eskisabel eta Iratxe Retolaza.

Zapatu gauean, musikea ez da faltauko Artean Asammer Band taldeagaz eta Mangual Binilo Pintadeagaz. **5. orrialdea**

ORTGMOBILITY

Mendieta 1 · Lemoa BIZKAIA
946 738 203

Gida Baimenak
Animalia Arriskutsuak
Nautika
Arma lizentziak
Segurtasun pribatua
Garabiak

ORDUTEGIA
Asteazken eta ostegunetan
09:00 - 13:00
Astelehen, astearte eta ostegunetan
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoganguren.eus - 611 72 88 55
info@psicotecnicoganguren.eus

Literatura txokoa

ABERRIAREN INPASEAK

Hiru hamarkada luzetan Renoko unibersidadeko Euskal Ikasketen Zentroan lanean ibili ondoren, Joseba Zulaika ez da inoz euskal errealidadetik kanpo bizi izan.

Ha-ta guzti be, behin erretiroa hartuta Euskal Herrira itzultzen danean, bertakotzeko ahaleginetan egoera konpleju askogaz egiten dau topo, liburuaren hitzaurrean umorez adierazoten dauan legez. Ziur, gutako askok antzeko egoerak bizi izan doguzala eta antzeko erreakzioei aurre egin deutsegula egoera eta talde barrietarako adaptazino faseetan... Hitzaurreak, bakarrik merezidu dau!

Inpass kontzeptuaren azalpen zehatz eta ondo dokumentaduagaz hasten dau lehen atala; azken baten, Euskal Herriak aurre

egiten deuten inpaseetako batzuk planteau aurretik konstruktuhorregaz zeri buruz egiten dauan berba jakin behar dogu, diziplina askori aplikagarria dan kontzeptua dalako.


Ondoren, dozena bat banaketa edo dikotomia azaltzen ditu: euskerearen ezagutzea vs. erabilerea, subjektu iraultzaileak vs. naufragoak, euskaldunak eta bascoak, euskerearen aberria vs. estadu independentea... eta kapitulu bakoitzeko gaiari lotutako iturri ugaritik edan ondoren, pentsalari helduen jakintza eta serenidadeaz baliatuta, egoerearen nondik norakoak adierazoten ditu. Beti be, erreferentzia aberatsez hornidutako azalpenak.

"Nor bere zoroak bizi du", dino

esakereak, horrenbestez gutariko baktotxa gai batzuetan beste batzuetan baino ibiliagoa izango da eta posizionamentu batzuekaz hobeto identifikauko da beste batzuekaz baino. Edozelan be printzipio batzuk birpentsetan laguntzen deusku, ezinbestean!

Jakinda zein gatxa dan gizataldeen etorkizuneko jokamoldeak iragartea, nire zalantzea da ea inpasei banaka aurre egitea, Zulaikak formulatzen dauan aurre egitearen antzekoa izan daiteken; subjektuan ondorioak dituan eta efektu horreek zelan eragiten daben bere jardueran. Bestela esanda, ekintzara ala babesbakotasunerakoeroaten gaituen.

Jasone Aldekoa



Joseba Zulaika

Aberriaren inpaseak

Alberdania, 2024

188 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Maiatzaren 12tik 18ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano. (10-16)

Maiatzaren 19tik 25era

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atubxa Sailburua 1

Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano. (17-23)

Maitzaren 26tik bagilaren 1era

Rodriguez Martinez. Igorre. Agire Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano. (24-30)

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunean: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunean 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunean: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunean: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunean: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-

Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunean: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizidade arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Agur "Rubio"

Ezetu izan genduanok zera dinogu: berezietan berezia zala gure Gabrielin Herreros "Rubio". Erretxina, "kas-karrabiasa". Modurik onenean eta gorenean, eztabaida atsegin eban horreetakoa. Andaluziatik hona etorritako familiakoa, bertakoa egina eta bertakotzak geunkana.

Bere izateagaitik, eragina izan dau gugan, gizakion normaltasunetik kanpo egoalako, personaia kuriosotzat izan gendualako, bihotz onekoa zalako; guztiontzat zan maitekorra.

Besteengan beti alai eta esperantzakor agertzen jakun, eta gizarteagaz eta gizakiokaz beti kritiko, jakintza eta ezaguera naturala eukan halako herriko filosofoa balitz legez. Guztion lagun eta guztiagaz eta guztiokaz kritiko. Badaukat kantutatu bat Rubiori ondo jatorkona, eta bere ideak biltzean dauzana: "bizitzen ikastea, norberengan sinestea da; bizitzen ikastea, umiltasunez jokatzeta da; bizitzen ikastea beldurra uxatzea da, bizitzen ikastea, hiltzen jakitea".

"Nik gura dodan bakar, zoriontsuak izan zaitezela", holan inoan eta hori bera esan eustan ospitalean bera bisitatzerat joan nintzan bere azken unean. Eta esan be egin neuntsan, "zu, Rubio, ez zara joango gugandik ezta gure berbal-dietatik, zutaz luzaroan egingo dogu berba". Inor naturala izan bada, holakoxea izan da gure Rubio. Heriotz aurreko unean be, lasai eta irribarretsu egoan, bizi garanon ona guran. Eta kurioz, ez dakigunaz ezin daiegeu ezer esan, baina bizitzaren eta heriotzearen misterioan gabizala eta misterio horretaz egin eustan eta egin genduan berba. Nork daki!

Zeanurira etorrenak eta Sagarna jatetxean sartu, han ikusiko eban

eta han entzungo eban gure Rubio batez be, ahots gorenean, oihuka edo deiadarka.

"Zuk uste baino maitatuagoa izan zara", holantxe agertu zan eskelan eta holantxe da. Berak uste hori eukanik ez dakigu baina dakiguna da, berataz orain eta geroan be berba egingo dogula, memorian geratuko jakun laguna izango dogula. Hileta egunean, eleizkizunetik kanpo eleizatari *Xalbadorren heriotzean* kantugaz batera, hainbat eta hainbat lagun negar malkotan egozan. Agur Rubio. Goian Bego.

GONTZAL MENDIBIL

Ze ondo Nerea!

Oso artikulu interesgarria aurreko zenbakian, Nerea Goioagak *Literatura Txokoa* sailean plazaratu ebana, Deepak Chopra eta bere liburua *Sincrodestinoren* gainekoa, hain zuzen. Egia esanda, harrituta itxi ninduan horrerit buruz interesatuta dagoan beste personarik topau izanak.

Fisikaz interesau nintzan Irlandan bizi nintzala, Dublineko Central Library (Liburutegi Nagusia) liburu zainzailearengana jo nebanean esanez ingelesez irakurteko erraza zan liburu bat gomendatzeko. Berak Stephen Hawking-en *A Brief History of Time* (Denporearen istorio laburra) hartzeako esan eustan, inork ez ebalu ulertzen baina hizkuntza aldetik ez zala gata. Eta egia zan. Zertarako zientzia-fikzioa? Fisika bera aho zabalik ixteko modukoa zala deskubridu neban. Zulo baltzak (hainbeste masa daben objektuak, ze inplosionau egin dabela hain grabedade handiagaz ze ezerk, ezta argiak berak be, ezin dau iges egin), espazio-denporea (bai... espazioa eta denporea gauza bera ei da!)

laugarren dimensio moduan, denporea bera ez da absolutua baina segun eta behatzaile edo begiralearen abiadurearen arabera, eta argiaren abiadura denporea gelditu egiten da. Liburuan Hawking-ek *string* teoria (soka edo korda teoria) aitatzen dau, horren arabera 10 edo 11 dimensio ei dagoz. Hau guztia gitxi balitz, unibersoaren gehiena materia eta energia baltzez osotuta dago, ezetu eta ulertzen ez dogun materia eta energiagaz.

Hau, niretzako, pasada bat zan. Baina gero, Fisika Kuantikoa etorri da eta orduan hasi gara benetan flipetan: partikulek ez daukie ezau-garri konkreturik (adibidez, leku jakin bat espazioan: hainbat lekutan egon daitezke aldi berean). Eta noz hartu behar dabez ezau-garriok? Noz, adibideari jarraituz, geratzen dira leku konkretu baten? Ba... nonok erreparau edo begiratu egiten dauzanean. Parkatu baina... Zer? Horrek esan gura dau bada-goala ulertzen ez dogun loturea, konzientzia edo gogoia eta mundu materialaren artean. Badirudi, mundua begiratzeagaz bakarrik, errealidadea moldatzen dogula. Bestalde badagoz partikulak, euren arteko hain lotura sakonak dabezanak, bata aldatzen danean bestea be, momentu berean, aldatzen dala, nahiz eta tarte luzea (milioika argi-urteak, esaterako) egon euren artean. Informazio hori argia baino azkarrago mobiduten da, eta hori be ezin dogu ulertu, ze suposatzen da, Einstein-eri jarraituz, hori ezinezkoa dala.

Hau guztiau Fisikeak, hau da, Zientziak esaten dau. Ez da mozkor edo erre dauan nonoren burutazioa, holan dirudian arren.

Oin dala urte batzuk, David Kaiserren *How The Hippies Saved Physics* (Zelan hippiek Fisikea salbau eben) liburua irakurtean, Nereak Literaturaren Txokoa aitatzen dauan Deepak Chopra ezetu neban. Liburu honek salatzen dau zelan Estatu Batuetako agintariek *shut up and calculate* (ixildu eta kalkulau) politikea inponidu eben, zientzilaria esparru edo eremu filosofikoetan sartu ez eitezan. Horrek krisi bat ekarri eban, lana diruagaitik bakarrik egiten danean pasetan dan moduan, eta Fisika Kuantikoak ez eban aurrera egin denporaldi baten, Kaliforniako fisikari batzuek (kontrakulturara lotuta eta batzuetan psikodelikotzat hartzean ebezanak) aurrerapausu inportanteak lortu ebezan arte. Honeetarik batek, Fritjof Capra-k *The Tao of Physics* liburua idatzi eban, Fisika moderno eta Ekialdeko filosofiaren arteko loturak eta bardintasunak aztertuz. Liburua erosi eta Arteako Foterie baserriko nire lagun Gaizkari oparitu neutsan, honen gaineko interesa eban Arratiako persona bakarria izango zala pentsauz. Ba... txarto nenbilan. Eta pozgarria da ikustea beste personak bere badagozala, uniberso hau zertan datzan ikasi eta aztertu gura dabenak. Eskerrik asko idatziagaitik, Nerea!

JOSU RICOY

ERETXIA



ALVARO RABELLI

Irakaslea

Sasoi ergelak

8Oko hamarkadako telebista hatan -bai neu be banaz 80ko hamarkadako telebistearen nostalgikoa, zergaitik ete?-baegoan benetan gogoko neukan programa bat, oker ez banago, *Destino 2000* eritxan. Bada programa horretan azaltzen zan 2000. urtetik aurrera etorriko zan teknologia. Ni guztiz miratuta nengoan, txora-txora eginda, robot hareekaz, espazion-tziakaz, informatikearen aurrerapenagaz, etxe domotikoakaz, eta beste milaka kontu zirraragarriagaz. Eskura geunkan etorkizunak ederra irudian. Ez dakit non eta noz, baina nonoz asuntoa okertzen hasi zan. Berlingo harresiaren erorketa, historiaren amaieria, Golkoko lehenengo gerratea, Clintonen felazioa... Zer dakit ba! Gero eta hurrago egoan muga gero eta gitxiago gustetan jatan. Zer esanik ba 2000. urte distxosozko haretatik hona, harrezkero ez dogu burua altxau, oin terrorismoaren kontrako gerrea, oin krisialdi ekonomikoa, gero aldaketa klimatikoa, ondoren pandemia... bai zerrenda amaigabe bat esango eban Hertzeinak taldeak Gariren ahotan.

Mesedez, planeta hau autobusa balitz, gustura jatsiko nintzateke, mende honetan asko sufriduten dot eta. Ez jat bape gustetan, kokoteraino nauka lehen miresten neban teknologia, dana *online* egin behar horrek nire senetik ateraten nau. Atzenean autortu behar izan dot ni XIX. mendeko gizona nazala. Nik lurrin lokomotorak maite dodaz, ez abiadura handiko trenak. Esan leiteke ia-ia karlista bihurtu nazala, Biba On Karlos eta Foru Zaharrak! Non dagoz lehengo taberna, etxe, eskina eta farola zaharrak? *Non dago Basque's Harbour?*

Txuma Murugarren nire lankideak Sasoi Ilunak taldea atzera be birsortu beharko leuke.

Bada ez, hobeto sasoi ergelak deitu, ze, aurreko guztiari oin ergelkeria deitoragarria gehitu behar deutsagu. Ergelkeriak erasanda bizi gara, nire uste apalean. Munduan trosta bizian doan totalitarismoak badauka horretan oinarria, ergelen iraultza da, sekula liburu bat bera be irakurri izan ez dauanarena, ironia eta metaforen esangura ez dakian jentearena, eretxiak emon baino oihu egiten dauanarena, gustu txarra eta afur-sa daukien lagunena, bizitza sare sozialetan jokatzten dauan gizartearena, informauta egotea zer dan aituten ez dauan hurkoarena.

Baten batek esango leuke ni antigualekoa nazala, holangoak beti gertatu izan dirala, bakarrik momentuko kontua dala. Baina, lehen pentsau neikean hori, gazteak gurasoak baino aurrerakoiagoak izango zirala eta hori guztia, baina... Oin ez dot uste, gazte batzuek bildurra emoten deuste, ez neuke sasoi honetan gaztea izan gura, benetan dinotsuet. Zer dira ba ule orrazkera futbolero motz horreek? Zergaitik "Mona Lisak" baino pintura gehiago eroan behar da tatuaia horreetan? Eta hainbeste burdina pitoaren puntan piercing ziztrin horreekaz? Eta eskolara joateko txandal baltz horreek?

Baina, benetan deigarria egiten jatana da, aspaldiko kontua bada be, hirugarren eskuko BMW zahar-tuak erosten dabezan gazteena, hori bai gustu ona, kinkillismo bikaina; edota eskutik lau txakur eroan behar dabezenena. Zergaitik lau txakur eta umearen gurditxoa? Ez dot aytuten. Eta ordu biko itxaronaldia ilara madarikatu baten Donostiako parte zaharrean pintxoak jatearren? Itzela, eta dana Adimen Artifizialari esker.

Bitartean reggaetoia eta zarata tu-neauak nire belarri gaixoak kolpetzen.

Eta hori guztia gitxi izan balitz lez, Aita Frantzizkok itxi gaitu, ume-zurtz itxi be. Gauzak zer diran, Aita Santuak berak ez dau egoerea argi ikusi, horregaitik joan da Josefateko zelaira, seguru asko daborduko Antikristoa Israelen jaio dalako, Lurralde Santuko Gaza eskualdeko zazpi izaretako *resort* baten, edota gertatu barri dan argi itzalketa orokorraren erdian. Nork daukaz erantzunak? Akaso Putin dalako batek?

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LXVIII). Kale berbakunea sustatu guran

KARLISTADAK (V)

- Hiru gudu karlista egon **zoazan**, Euskal Herriko populazio erdia hil **zoan**.
- Lege Zaharrak galdu **zoazan**.
- Herrien burujabetza ekonomikoa apurtu **zoan**.
- Zergak ordaintzen hasi **zoazan**.
- Herri aberats bat txirotu egin **zoan**.
- Burdinolak, egurrolak, ontzigintzea eta bertako beste industria asko zapuztu **zoazan**.



LUMATUTEN



ILIA MITXELENA

Bidaiazeko moduak (I)

Batzuetan barrutik sentiduten dozu leku bat dagoala bertara joan behar dozuna... dei hori sentiduten dozu, nahiz eta kilometro askok maskorrez estalitako kobazulo batetik bereizten zaituan; nok egin eban eta zergaitik inork jakin ez arren.

Ez gara bidaia handiko familia, ezta gastu handikorik be. Baina artisautza sariak emondako alaitasun ekonomikoak, geure buruari opari hau egiteko aukerea emon deusku; eta jakina, emozino handiak egon dira joan garan bidaia guztientzat; baina bizi izan dodan opari handi honetaz eta zelan bizi izan dodanaz bakarrik egingo dot berba.

Misterioa gustetan jata (izugarri gustetan jatan misteriozko *podcast* batengaitik ezetu neban leku honen existentzia); personek sortu eta eregiten egon diran lekuetako energiak sentidutea... Antropologiak azaltzen deusku nok, eta zertarako egin

eben trikuharri bat, eleiza bat, piramide bat... eta batzuetan, ez dago azalpenik, lekuaren inguruko guztia ezezaguna da-ta.

Ez deusuet esango non egon garan, baina XVIII. mendearen hasieran familia batek, gizakiak egindako haizulo bat aurkitu eban erosi barri eban etxe baten lursailean. Forma geometriko ederrak osotuten dituen itsas oskolez beteta dago haizuloa; batzuk interpretatu daitezke (eguzkiak, izarrak, eskeletoak...), eta beste batzuk ez dagoz hain argi. Teoria asko dagoz haren sorrerari eta erabilereari buruz, eta batek be ez dau ezer baieztatzen.

Familiagaz sartu ondoren, leku horretan bakarrik egotea eskatu neutsen tarte baterako (bakar-bakarrik... ez egoan beste inor han eta magikoa izan zan). Esan behar deusuet oso bildurtia nazala, eta misterioa izugarri gustetan jatan arren, erraz ikaritzen nazala... eta bueno, lekuari buruz be esaten dabe andra baten mamua dagoala han...

ZERTZEAN



Golgota

KARLOS ARETXABALETA

Erabaki zuzena hartu ote nuen? Mendian gora egin arren, ezin nuen askatu neure baitan katramilatutako korapilo amaigabea. Hotza, nekea. Ekaitzak atzamarrak aspaldi hozmindu zizkidan, baina, jakitun, ez nuen eskularrurik jantzi nahi izan. Zertarako? galdetu nion neure buruari. Horrelakoetan nahiago dut, akaso, azal arraildua, esku-atzamar sorgortuak ez sentitu, sentsazio horrek, ustez, barneko zama arintzen lagunduko didalakoan. Ai ene... ene Golgota mendia! Bihar (ere) argituko dik?

Normalean kotxera heldu orduko atzamarretako ukimena berreskuratzen dut. Beste batzuetan, aldiz, orratz finen ziztatatxoez baliatzen naiz mugikortasuna eta egoa berreskuratzeko.

Egun hartan, ordea, bainuontziko ur-epelak eta negar-malkoen gaziak baino ez zidaten mendian galdutakoa itzuli.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Gautxoria da kurubioa eta akaso, egunez, burumakur eta begiak erdi zarratuta eukiteak ez dau esan gura triste edo etsituta dagoanik. Akaso logurea baino ez da.

Areztako balkoi baten barandea hartu dau honek ota lez, eta han egoten da behera begira eta isilik. Kurubioa ez da hegazti migratzailea, lur zati baten egoten da beti eta ez dakit zelan eroango dauan honek, lur zati hori, kalea deitzean doguna, gizakiakaz konpartidutea. Ez dot uste erraza egingo jakonik sagu eta animalia txikiak ehizatzea han, animalioz igesi egiten dabelako gizakia, harraparien artean harrapariena, agertzen danean eta.

Kurubioaren u-hu-hua zorte txarra eta heriotzeagaz lotu izan da mitologian; bere lehengusu hontza barriz, jakinduriagaz, eta Atenea, jakinduriaren jainkosa grekoa, hontz bategaz irudikatuten zan. Begiratu triste hori daukan kurubioari nik lehengusuaren antza handia ikusten deusat: isilik egon arren, dana jakingo baleu lez.

Atenea billaroztar baten bila ete dabil sekretuok xuxurlatzeko?





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaka
T. 94 631 50 39
Itxaropen Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

ARTEA

Pentsamentu dekoloniala eta burujaubetza landuko dabe Artean hiru eguneko jardunaldietan

Erredakzinoa

Berbaldi, mahai-inguru eta eztabai-den bitartez pentsamentu dekoloniala eta burujaubetzearen inguruan hausnartzeko aukerea egongo da Arteako Herriko Bentan, maiatzaren 23, 24 eta 25ean. Han, hamazazpi bat adituk hartuko dabe berbea, Mario Zubiagak, Mari Luz Estebanek eta Idurre Eskisabelek tartean, XXI. mendeko burujaubetza prozesuez, migrazioen auzia eta erreakzioez, globalizazioa eta inperialismoaz eta demokraziaren pribatizazioaz, besteak beste, jarduteko.

Barikuan, hilak 23, 17:00etan hasiko dira jardunaldiak, Soziologian doktorea eta unibersidadeko irakaslea dan Onintza Odriozolaren *Ikuspegi dekoloniala Euskal Herritik* berbaldiagaz. Ostean, 18:00etan, *Burujabetza prozesuen aukerak XXI. mendean* landuko dabez Claudia Gonzalezek eta Mario Zubiagak. Mario Zubiaga EHUko irakaslea, EH Bilduko senataria eta Gure eskuko kidea be bada. Eguneko atzen mahai-ingurua, Amanda Verronek eta Elene Lopetegik eskainiko dabe, *Feminismoetatik burujabetzetara* izenpean begirada dekolonial eta ekofeministak eskainiz.

Zapatuan egun osoko egitaraua Zapatuan, goizetik iluntzera, lau mahai-inguru egongo dira, eta gauean jai giroa izango da nagusi kontzertua eta binilo pintxadeagaz.

Lehenengo mahai-inguruan, 11:00etan, Javier Villarek eta Tania

Cañasek *Pentsamendu dekolonialaren beharizana ipar globalean* landuko dabe ikuspuntu marxista, feminista eta dekolonialetik. Ostean, 12:30ean, *Herri libre baterako sujeta berriak* izenpean jardungo dabe Kinnari Ladron de Guevarak eta Andoni Olariaga filosofoak.

Bazkalostean, Txefi Roco, Mishell Gomez eta Mari Luz Estebanek txandea izango da. *Migrazioaren erronkak eta aukerak* gai hartuta, migrazioen iragana, oraina eta etorkizuna landuko dabe. Ostean, 19:00etan, Jai Toki eta Arteako Sareako kideek, proiektu antierrazista eta komunitarioak aurkeztuko ditue esperientzietatik ikasteko.

Eta gauean, musikeak ipiniko dau jai giroa. 21:30ean, Amazigh musikea egiten dauan Asammer Band taldeak kontzertua eskainiko dau eta 23:30etik aurrera, Mangual Binilo Pintxadea egongo da.

Atzenik, domekan, Idurre Eskisabel, Ibai Atutxa eta Iratxe Retolaza egongo dira Arteako Herriko Bentan, 11:00etatik aurrera, *Hizkuntza-borroka eta nazio gatazka* izenpeko mahai-inguruan. 13:00etan, amaierare emongo jakie jardunaldiei.

Izen-emotea Izena emon daiteke *herrikobenta. artea@gmail.com* helbidean, 94 602 88 55 telefonoan edo X eta Instagramen Arteako Herriko Bentako kanalean. Lotarako gunea be eskainiko dau antolakuntzeak, 14 euroko prezioan, eta erreserbak egiteko telefonoz deitu behar da.



ARRATIA

Israelek droneakaz erasotu eban Gazara laguntza humanitarioa eroatera joian Askatasunaren Flotillako itsasontzia

Nazinoarteko uretan, Maltatik hur izan zan eraso maiatzaren 2an, 00:23an Maltako orduan. Ez zan zauriturik egon baina kalteak handiak izan ziran Conscience itsasontzian, brankan zuloa eragin eban eta sua biztu zan, energia sorgailua be hondatu eban erasoak.



Erredakzinoa

Ziprek bialdu eban erreskate ontzia aktibistei laguntzea emoteko. Conscience itsasontzian, 21 herrialdetako 30 aktibista ziran Gazara laguntzea eroatekoak, tartean, Artea Sareako Mikel Zuluaga. Zuluaga ez egoan itsasontzian eraso gertatu zanean, beste ekin-tzaileakz batera, Valletan egoan itsaontzira igoteko zain. Erasoaren momentuan tripulazino txiki bat eta lau aktibista egozan bertan.

Conscience itsasontziaren helburua, Gazaraino joatea zan, laguntza humanitarioa itsasotik eroanez blokeoa apurtzeko. Erasoan itsasontzia oso kaltetuta geratu zan eta ezin izango dau laguntzea eroan. "Gure itsasontzia bonbardau daben honetan inpotentzia erabatekoa da, gu ondo gagoz eta beharrezkoa ikusten dogu gu fokutik ateratea Palestina sufridu-

ten dagoan genozidioari protagonismoa emoteko" adierazo eban Arratiakoak komunikadu baten. Etxean da daborduko Zuluaga.

Ha-ta guzti be, eta ekintza hau bertan behera geratu arren, Israelen inpunidadea salatu eta burrukan jarraitzeko deia egiten dau Askatasunaren Flotillako aktibistek. "Ezpabere konplizeak izango gara, holokaustoaren antza daukan Palestinako genozidioan".

Genozidioa eta laguntzeari blokeoa Gazan Gazako blokeoa salatzea da Askatasunaren Flotillaren helburua. 2025eko martiaren 2aren ezkerotzik, Israelek Gazara sartzea galarazo deutse laguntza kamioiei, eta gosetea eragin dau eta Nazionarteak ez dau hori gelditu. "Mundu guztiak badaki, baita beste alde baterantza begiratuten dabenek be, Palestinan sarraski

izugarria dabizela egiten, Historiako pasarte ilunenakaz parekatu daitekena. Eta Europako podereek ez badeutsie masakre honeri irmo erantzuten, herritarrok egin beharko dogu" dino Zuluagak komunikaduan.

Erantzuna Artea Sareak salaketa publikoa eta Palestinako herriagazko alkartasun deialdia egin dau. "Israelgo Estaduak heldu arazo gura izan dauan mezua da edozein eskubideren gainetik bere interesak dagozala eta eurek idazten dabela historia honen amaierare. Artea Sareatik itxaropenaren aldeko deia egiten dogu eta itxaropenari atea zarratu gura deutenaren aurrean ez etsitzeko eskatzen dogu, partekatzen dogun minetik erantzuteko".

Gemika-Palestina ekimenak be irmo salatu eban eraso eta deia egin eutsen erakundeei. "Argi denez, Israelgo Estadia gai da inpunidade osoz nazinoarteko uretan zibilei eraso egiteko, nazinoarteko agintariak beste alde batera begir-tzen daben bitartean" azaldu eben herri ekimenetik eta nazinoarteari eskatu deutso "txarretsi dagian laguntza humanitarioko ontzi desarmau baten kontrako eraso", eta eten dagian "Israelen legez kanpoko setioari, blokeoari, okupazioari eta apartheidari emondako babes politiko, ekonomiko eta militarra".

AREATZA

Merkataritzea bultzatzeko kanpainea ipiniko dabe martxan hilaren 20an

Erredakzinoa

Herriko merkataritzea bultzatzeko asmoz, Areatzako Udalak Bono Denda kanpainea ipiniko dau martxan, jenteak herrian bertan egin dagiazan erosketak. Bonuek erosketak %20 merkeago egitea ahalbidetuko dabe. 400 bonu dagoz salgai igaz baino 200 gehiago. Bonuak Gauzak dendan erosi

ahal dira 20 euroan, gero parte hartzean daben dendetan 25 euroko balioa izaten dabe. Aurkeztutako NAN bakoitxeko gehienez hiru bonu erosi daitekez. Kanpainen parte hartzean daben dendak, Aliprox Areatza, Andikoa harategia, Gauzak dendea, Arantzeta Zamalloa botikea, Areatzako estankoa, Denda Barri, + Ke PAN okindegia eta Vade retro ule-apaindegia dira.



ZEANURI

Behiak eta behorak protagonista
Zeanuriko San Isidro jaietan

Baserri giroko jai handia da San Isidrokoa Zeanurin. Baserriko produktuak, artisautzea, ganadu azokea eta idi-probez gainera, kalejirak, erromeria eta umeentzako jolasak be ez dira faltauko, lau eguneko jai eigtarauan. Idi-probak San Isidro egunean manteniduten badira be, atzen urteotan, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azoka zapatuan egiten da, jente gehiagok disfratau ahal izateko.



Erredakzinoa

Ha-ta guzti be, ganadu azokea da jai egitarauko izarra. Aurten, igaz baino ehun abelburu inguru gehiago egongo dira; guztira 424, Udalak emondako datuaren arabera. Igaz barriz, 313 abelburu izan ziran. Behi ganaduari jagokonean, 129 buru egongo dira (86 behi, 8 zekor eta 35 txahal). Zaldi aziendeak, guztira, -behorrak, zaldiak, astoak, ponyak...- 148 buru erakutsiko ditu aurten: 77 behor,

13 zaldi eta 38 moxal eta gainontzekoak astoak eta ponyak dira. Baserriko sasoiko produktuak eta artisautzea be egongo da azokan. Baita gaztai egite, sega, ardi mozte erakusketak eta artxo txuleta dastaketea.

Egitaraua
Maiatzak 15, eguena

11:30ean, umeentzako jolasak. 12:00etan, meza nagusia San Isidron. 13:00etan, Arrikibar jantza tal-

dearen emonaldia herriko txistulariakaz. 18:00etan, idi-proben erakustaldia.

Maiatzak 16, barikua

19:00etan, XLVI. BBK Abesbatzen Kontzertuak Andra Mari eleizan: Sestaoko Orfeoia, Zeanuriko Abesbatza eta Uri-osteko Orfeoia.

Maiatzak 17, zapatua

10:00etatik 14:00etara, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokea eta herriko txistulariak zein Arrapaladan trikitilariak herritik; bitartean, gaztai egite, sega, ardi mozte zein Enkarterrietako Billano txakurren erakusketak, artxo txuleta dastaketea eta *Bertan lan, bertan bizi* argazki erakusketea. 13:00etan, abereen sari banaketea plazan. 19:00etan, Zuttik elektrotxarangea herrian zehar. 22:30ean, Argitu erromeria eta DJ Lander.

Maiatzak 18, domekea

10:00etan, aire zabaleko pintura ikastaro praktikoa (plaza mugatuak dagoz).

ARRATIA

Haron gizonak hildako andrea gogoan,
elkarretaratzea egin zan Igorren

Erredakzinoa

Aprilaren 25ean gizon bat atxilotu eben Haron (Errioxa) bikotekidea hiltea egotzita, eta handik aste bira Gasteizko Udalak jakinarazo eban biktimea gasteiztarra zala. Hilketa matxista baten biktimea Euskal Herrikoa danean, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxeak konzentrazioak deitzean ditu eta maiatzaren 13an, Igorren, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxeak eta Arratiako Mugimendu Feministek deituta, elkarretaratzea egin zan, andrearen hurrekoak azkartasuna adierazoteko eta indarkeria matxisteagaz amaituteko neurriak eskatzeko. Biktimea Euskal Herrikoa baka-

rik danean egiten dira konzentrazioak, andrak biktimea diran hilketa matxistak etenbarik gertatzen diralako munduan eta espazioari edo denporeari jagokonean muga bat ipini behar dalako txarrespena bistaratzeko. Lurraldearen muga aukeratu zan.

Indarkeria matxistea giza eskubideen urraketa larria da, eta hilketea matxisismoaren adierazpen larriena, baita duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren kontrako lehen mailako arazo soziala be. Erakunde publikoek andren giza eskubideak bermatzeko obligazinoa daukie.



ARRATIA

Izena emon daiteke Artea,
Igorre eta Zeanuriko
udalekuetarako

Erredakzinoa

Arteako udaleku irekietan parte hartzeako izena hilaren 21era arte emon daiteke udaletxean; Igorren, Kultur Etxean emon behar da izena, hilaren 20ra arte eta Zeanurin, 22ra arte, *kultura@gardabera.com* helbidean.

Arteako udalekuak, 2013 eta 2020 bitartean jaiotakoentzat dira. Lau txanda dagoz; lehenengo bagilaren 23tik 27ra; bigarrena, bagilaren 30etik garagarriaren 4ra; hirugarren txandea, garagarriaren 7tik 11ra eta laugarrena garagarriaren 14tik 18ra. Udalekuen ordutegia 10:00etatik 14:00etara izango da, baina "goiz txokoa" be egongo da 08:00etatik 10:00etara behar daben umeentzat. Urtekera egunean 10:00etatik 17:00etara izango da ordutegia. Aste bakotzeko prezioa 30 eurokoa da eta batzar informatiboa egongo da bagilaren 9an, 19:00etan, Kultur Etxean.

Igorre

Urte bi eta LHko 6. maila egiten



LEMOA

Lemoan izango da
Arratiako Guraso
Elkarteen IV. Topaketea

Erredakzinoa

Artea, Igorre eta Zeanurin egin ostean, Arratiako guraso alkarteen aurtengo topaketea Lemoan izango da, maiatzaren 31n. Ekitaldi honen helburua Arratiko ume eta gazteak euren artean ezetu eta, jai giroan, egun polit bat pasetea da. Horretarako, egun osoko egitaraua antolatu dabe Arratiako guraso alkarte guztien artean.

Holan, goizean familian egiteko ibilbidetxo bat izango da herriko txokoak ezetuteko. Ostean, Altza

daben arteko umeentzat dira Igorreko udalekuak. Bagilaren 23tik garagarriaren 24ra arteko asteetan da eskaintzea; 10:00etatik 13:00ak arteko ordutegiagaz. Aste bakotzeko prezioa 30 eurokoa da.

Informazinoa emoteko batzar bagilaren 16an izango dira Kultur Etxean. Haur Hezkuntzako umeen gurasoakaz 17:00etan izango da batzarra eta Lehen Hezkuntzakoakaz, 18:00etan.

Zeanuri

Udalekuak 2013 eta 2021 bitartean jaiotako umeentzat dira. Aste bi izango dira; lehenengo astea bagilaren 23tik 27ra eta bigarrena bagilaren 30etik garagarriaren 4ra. Izena astea emon behar da, aste baten edo bietan. Udalekuen ordutegia 09:00etatik 14:00etara izango da eta prezioa 50 euro astean herrian errolatuentzat, eta 70 euro erroldatu bakoentzat da. Gurasoentzako batzar informatiboa egongo da bagilan baina BEGITU zarratute-rakoan ez egoan data zehaztuta.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Gorbeiako Parke Naturalak Aitamen Berezia jaso dau National Geographic 2025 Bidaia Irakurleen Sarietan

Erredakzinoa

Gorbeiako Parke Naturalak Aitamen Berezia jaso dau National Geographic 2025 Bidaia Irakurleen Sarietan Helmuga Natural Onenaren kategorian, bozketa garaian izandako herri mobilizazio handiari esker. Aitorpen horrek, lurralde horri balioa emoten deutso. Maiatzaren 8an, banandu ziran

sariak Madrilén, eta bertan izan ziran saritutako helmugetako ordezkari nagusiak. Gorbeiairen aldetik, Agustin Otsoa Eribeko Landa, Gorbeialdeko (Araba) Kuadrillako presidentea, eta Olatz Urkiza Atutxa, Gorbeialde (Bizkaia) Landa Garapeneko Elkarteko presidentea egon ziran. Erakunde horreek helmuga turistikoki hori kudeatzen eta sustatzen dabe.



ARRATIA

Illart Gumuzio eta Enara Gallastegi Udabarria Bertsotan txapelketan dabilz parte hartzean

Erredakzinoa

Txapelketako lehenengo saio biak maiatzaren 8an jokatu ziran Bakion eta Munitibarren. Gumuziok Munitibarren kantau eban eta bosgarren egin eban 146,5 puntugaz. Gallastegi, Balmasedan estreinauko da hilaren 15ean. Asier Galarzak irabazi eban Munitibarren jokaturako A moltsoko lehenengo saioa, 194,5 puntugaz. Saioa horretan, Gumuzio eta Galarzak gainera, Maite Sarasola, Beñat Bilbao, Ander Elorriaga eta June Diaz neurtu ziran. Gai-jartzaile lanetan Leire Gratxena ibili zan eta epai-mahaia Ander Txakartegik, Mirari Azalak eta Miriam Juaristik osatu eben. Maiatzaren 15ean, Enara Gallastegiren txandea izango da. Dimoztarra be A moltsokan dago eta Aitor Arrutia, Araitx Katarain, Ixone Asategi, Janire Arrizabalaga eta Maider Altuna izango ditu aurrean. Gai-jartzaile lanetan, Arantzazuko

Igor Menikak jardungo dau. **Udabarria Bertsotan Txapelketea** Udagoienean izango da 2025eko Bizkaiko Bertsolari Txapelketea eta txapelketarako sailkapen fasea maiatzean jokaturaren da Udabarria Bertsotan izenagaz. Maiatzaren 8tik 29ra, 8 saio izango dira Bizkaian. Antolaketan hamaika lagun, 8 gai-emoile, 13 epaile, idazkari 2 eta 48 bertsolari egongo dira. 48 bertsolariak moltsok bitan banandu dira, eta moltsok baktokxan 4 saio jokaturako dira. Moltsoko puntuazio altuena daukien bertsolariek eskuratuko dabe udagoienean jokaturako dan Bizkaiko Bertsolari Txapelketan parte hartzeako txartela. Udabarria Bertsolanetik sailkatutako bertsolari horreei sailkatuta dagozan bertsolariak batuko jakiez, Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2023an finalaurrekoetako fasean kantau ebenak eta finalera heldu ez ziran bertsolariak.

ARRATIA

Osasun zentroek erreteari ixten lagunduteko dituen baliabideak emongo dabez jakitera Kerik Gabeko Astean

OMEk maiatzaren 31n ospatzen dau Tabakorik Gabeko Munduko Eguna eta aurretik, 26tik 31ra, Kerik Gabeko Astea antolatuten dau Osakidetzak.



Erredakzinoa

Hori dala-ta, Arratiako Lehen Mailako Arreta Unitateak (LMAU) konzieniazino ekintzak antolatu dauz eta Igorreko Osasun Zentroak mahai informatibo bat ipiniko dau aste osoan, tabakoaren kalte eta ondorioez informatuko, baita erreteari ixteko dagozan baliabideen barri emoteko be. Arratiako LMAUK, Igorre Aktibo eta Lemoako Oingabiz, jarduera

fisikorako orientazio zerbitzua-gaz batera, kirol jardueraren bat be antolatuko dau.

Erreteari ixteko zerbitzuak Arratiako osasun zentroek, tabakoa itxi ahal izateko hainbat baliabide dituela dino Iratxe Baraiaetxaburu Arratiako LMAUko erizainburuak. "Erizainek, modu indibidualen zein taldean, tabakoa ixteko zerbitzua eskaintzen dabe. Tabakoa ixteko taldea,

astelehen arrastietan eskaintzen da 15:30etik 17:00etara Igorren, 7 astez. Eta zerbitzu indibiduala eta taldekoaz aparte *online* zerbitzua be badago. Nonok interesa badauka, Osasun Zentrora baino ez dau jo behar" azaldu deutso BEGURI Baraiaetxaburuk. Espainiar estaduan, tabakoak igaz 60.000 heriotz eragin ebazala eta ekidin daiteken lehen heriotz kausa dala be badino.

Tabakoaren kalteak Tabakoaren keak 7.000 produktu kimiko baino gehiago ditu eta horreetatik 250 gitxienez kaltegarriak dira. 69k minbizia eragiten dabe. Tabakoari ixteak onurak izaten ditu epe labur, ertain zein luzera. Holan, beste onura batzuen artean, egun batzuetan, dastamen eta usaimena hobetuten dira, baita ahoaren eta hortzen osasuna be; aste batzuetan, bihotzekoak jota hiltzeko arriskua murriztuko da; hilebete batzuetan bronkitis kronikoaren sintomak hobetuko dira eta urtebetean, gaixotasun koronarioa izateko arriskua erdira jatsiko da.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Akordioa lortu dabe Irakaskuntzan

Maiatzaren 9an, negoziiazino luze eta gogorren ostean, sindikatuak Eusko Jaurlaritzeak hezkuntza publikoko irakasleen lan itunaren gaineko akordioa lortu eben. Hori dala-ta, bertan behera itxi ebezan maiatzerako deituta egozan grebak eta mobilizazioak.

Erredakzinoa

ELAk izan ezik, beste sindikatu guztiek sinatu eben akordioa eta Begoña Pedrosa Hezkuntza Sailburuak "historikotzat" jo eban. "Akordioaren titutalarra da hezkuntza, hobekuntza eta kalidadea ekarri doguzala erdigunera" azaldu eban Pedrosak Euskadi Irratian. Baina lan itunak, lan baldintzak eta soldatak hobetuko dituan arren, Euskal Eskola Publikoak beste erronka eta arazoak be badituala dino sindikatuak eta horreen alde be burrukan jarraitu

behar dala uste dabe. Adostutako lan itunaren arabera, soldatek, guztira, %7ko igoera izango dabe datozen hiru urteetan; 165 egunez lan egiten

daben ordezkoez udan soldatea kobrurako dabe, eskola orduak murriztuko dira eta jubilazioa be erraztu egingo da, beste hobekuntza batzuen artean.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Ekitaldi ugari gurean Euskaraldian

"Elkar mugituz egingo dugu" lemapean, maiatzaren 15etik 25era, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskerea indartzeko benetan eragingarri dan Euskaraldia izango da. Ahobiziek eta belarriprestek hartutako konpromisoari esker, erabilerea handituko da eta euskereak kaleak eta plazak hartuko ditu.



Erredakzinoa

Euskaraldia hasteko edo amaitzeko jaiak, ikuskizunak eta beste jarduera ugari prestatu dabez herrietan, euskerearen presentzia indartzeko.

Arantzazun, maiatzaren 15ean Euskaraldiari hasikerea emoteko batuko dira partaideak plazan. Bertsoak egongo dira, txapak banandu eta brindisa egingo dabe txokolateagaz. Hilaren 18an, domekea, jaia egingo da. 11:30ean herri kirolak egongo dira gazteentzat, 13:00etan, argazki herrikoia plazan eta 13:30ean, Kahoot herritarra hitanoari buruz. Kategoria bi egongo dira, Gazteak, 16 urte arte eta Nagusiak. Sariak egongo dira irabazleentzat. Arrastian, 17:00etan, *Oilaskoen ihesa: Nuggetaren egunsentia* pelikulea euskeraz ikusteko aukerea egongo da Kultur Aretoan.

Areatzan, hasikerako ekitaldia egingo dabe maiatzaren 15ean,

18:00etan Gudarien Plazan. Aho-bizi eta belarripresteko txapak batu bitartean, txitxi-burduntzia egingo dabe eta 19:00etan argazki herrikoia. Hilaren 24an, 19:30ean, Mikel Martinezen *Hamalau* eta Patxo Telleriaren *Txizatoki bat eszenalekuan* antzezlanak egongo dira ikusgai udaletxeko areto nagusian.

Artean, Euskaraldiaren hasikera eta amaierako ekitaldiak egongo dira. Hilaren 15ean, 19:00etan, argazki herrikoia egingo da udaletxean eta 25ean, euskarari landare landaketea. "Arteako entidadeek landare bat landatuko dabe goiko parkean eta kartel bat ipiniko da Euskaraldiaren leloagaz, bertan geratu daiten bizirik euskereagazko konpromisoa: Elkar mugituz egingo dugu" azaldu deustso BEGURI Gorka Beitia zinegotziak. Maiatzaren 23an, 19:00etan, Kittu taldea egongo da plazan, euskal kantuakaz giroa alaitzen.

Bedian be, maiatzaren 15ean

alkartuko dira plazan, danak bate-ra txapea janzteko eta 23an egingo dabe jai bat. 18:15ean, pantoxt Kultur Elkarateak *Ileapaindegi zoroa* ikuskizuna eskainiko dau; 18:45ean, partaide guztien argazkia egingo da eta euskerearen aldeko *Gure bihotzen taupadak* kantuak dabe; 19:00etan, Itziar Saenz de Ojerren *Andereño Rosita* umorezko ikuskizunagaz amaitutuko.

Diman, egitarau sendoa prestatu dabe, hasikera eta amaierako ekitaldiakaz, hitano poteoa eta antzerkia eta zinea tartean. Maiatzaren 15ean, 19:00etan hasiko da ekitaldia. Euskaraldiaren aurkezpena; txapa ipinte bateratua; mezuen irakurketea; Hamaikakoa; jantzea, kantu eta bertsoak; Euskaraldiko kantea; argazki kolektiboa eta txokolatea egongo dira ekitaldian. Hurrengo egunean, hilak 16, 18:00etan, *Papertxori* antzerki ibiltaria frontoi txikitik abiatuko da; 19:00etan, hitano poteoa egongo da Axlorren hasita eta 19:15ean, jaietako pelota partidua frontoi txikian. Maiatzaren 18an, domekea, *Erlauntza* pelikulea botako dabe eskolako kameran. Hilaren 22an, *Euskaldungak* antzezlanak egongo da ikusgai 19:00etan, eskolako kameran. Amaiera ekitaldia, maiatzaren 25ean, 12:30ean hasiko da plazan. Aurkezpena; mezuen irakurketea; jantzea, kantuak eta

bertsoak; Euskaraldiko kantua; argazki kolektiboa; txitxi-burduntzia eta trikipoteoa Merhezi taldeagaz egongo da orduan.

Igorren be ospatuko dabe Euskaraldiaren hasikerea. Maiatzaren 15ean, 19:30ean, Gau Lora tabernatik hasita, herriko trikitilariak ipiniko dabe jai giroa eta hurrengo egunean Euskaraldiari buruzko ihes gela egongo da Lasarte Aretoan.

Lemoako dendetan euskeraz egiteko kanpainea Euskaraldian

Lemoako Udaleko Euskara Zerbitzuak, "Euskeraz eskatu, irabazi saria" kanpainea ipini dau martxan Euskaraldian zehar, jentea komertzioetan be euskeraz egiten animetako. Erosketak euskeraz egiten dabenek sariren bat izan ahal dauan txartel bat jasoko dabe. Txartelotan 24 establezimientuk ipinitako 978 sarietako bat tokau dakikee. Sari-rik ez daukien txartelakaz, zozketa baten parte hartzeako aukerea egongo da: Urduñako bainuetxean persona birentzako egonaldia eta Garena jatetxean persona birentzako jatordua zozketatuko dira.

Horrezaz gainera, Euskaraldiaren hasikerako ekitaldia be egongo da Lemoan, amen arteko pelota partidukaz, txapa janzte "masiboa" eta argazki "erraldoiagaz". Hilaren 17an, 20:00etan, Kotxepin Kultur Etxean *Eukalyptus* antzezlanak ikusteko aukerea egongo da eta 23an, umeentzako antzezlanak eta Durundi Barri jantza taldearen emonaldia egongo dira. 18:30ean, Kultur Etxean izango da *Pantxitxiketan urtaroen bidaia* antzezlanak eta 19:30ean, hasiko da Durundi Barriaren emonaldia Plaza Gorrian, plazaz plaza ibilteko.

Ubiden mendi urtekera bategaz egingo deustie agurra Euskaraldiari. Maiatzaren 25ean, Motxotegira igongo dira Ubideko plazatik 11:00etan urtenda. Tontorrean,

Otxandio eta Legutioko jenteeagaz batuko dira eta Euskaraldiaren kantua abestuko dabe. Gainera, Euskaraldiak irauten dauan bitartean, udaletxe portalean, Ubideko Berben Kutxa ipiniko dabe, Ubideko berbak idatzi eta bertan sartzeako.

Zeanurin, umeek murala pintatuko dabe plazan hilaren 16an, 17:30ean. Ekintza hau musikaz girotuta egongo da eta ostean, argazkia egingo dabe.

Zeberion, Euskaraldia hasi aurretik, hilaren 9an, atera eben argazkia. Maiatzaren 16an, 17:30ean, Amaia Egidazu ipuin kontalaria egongo da Hogarrean eta 23an, 19:30ean, kantu poteoa egingo dabe plazan.

ARTEA

Artea zinerako kokalekuen plataforman sartu da

Erredakzinoa

Eusko Jaurlaritzak, Film Basque Country (FBC) izeneko plataforma bat sortu dau, nazioarteko zine ekoizpenei, pelikulak filmetako lekuak aukeratzeko lagunduteko. Artea kokaleku zinematografikoak erakusteko FBC plataforman sartu da.

Arteako udalerrian dagozan 12 kokaleku dagoz plataforman: Arteako ikastola zaharra, Elea-beitiko auzoa, Arteako hilerria, Meñaka Jauregia, San Migeleko ermitea, Santiago ermitea, Santamañeko ingurua, Arteako Santa Maria parrokia, Bikotzganeko begiralekua, Arteako Herriko Plaza, Bildosolako presea eta Bildosolako Industrialdea, hain zuzen be.



AREATZA
BONO
DENDA

ETORRI AREATZARA EROSKETAK EGITERA

Maiatzaren 20tik
ekainaren 30era



EROSKETAK
%20
MERKEAGO



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57



ekin@ekinsl.eus



Igorre (Bizkaia)

AREATZA MUSIK & BEER

Areatza Musik & Beer jaialdia sano indartsu dator

Maiatzaren 29an gastronomia saio bat egingo da Dimako Garena jatetxean eta hilaren 30 eta 31n izango da musika eta garagardao jaialdia Areatzan.

Musikeari jagokonez, batez be rock & roll, blues eta soul musikea egiten daben 10 taldek joko dabe, eta Basque Beer Euskal Garagardoaren Elkartean batzean diran ekoizleen hainbat garagardao artisau dastatzeko aukerea egongo da. Gastronomiak be garrantzia berezia dauka jaialdi honetan: 29an, 19:00etan, aurten lehenengoz, Garena jatetxean lau garagardao artisauaren eta lau mokaduren maridajea egingo da, bere bakarkako proiektuagaz etorriko dan Goiatz Dutto Moonshine Wagon taldeko abeslariak lagunduta. Txartelak Areatzako Bainuetxean erosi ahal izango dira (40 euro).

Erredakzinoa

Bizkaiko foodtruck bi eta Logroñoko bat be egongo dira jaialdian.

Kontzertuak, gunen bitan egingo dira; Gudarien Plazan eta Kallartean, Zubizarrako parkinean. Gudarien Plazan eszenaleku nagusia egongo da eta bertan izango dira arrastietako kontzertuak, karpa handi baten azpian. Kallartean izeneko gunean barriz, zapatu eguerdi-arrastiko musika kontzertuak, jatekoa, eta azokatxo berezi bat egongo dira.

Azokan, Mutur Beltz, Torontile, GoraKat eta BaRock artisauak hartuko dabe parte. Mutur Beltz Laurita Silesi diziplina ugariko artistearen bizi proiektua da. Karrantzako ardi baltzari balioa emoten deusan arte sorkuntza jakintza tradizionalen konserbazinoagaz lotuz. Areatzan, ardi-uileagaz eta bizikleteak lagunduta txapel bat egingo dau zapatu goizean.

Atzen urteetan Areatzako jaialdiko kamisetak egin dituan Torontile serigrafia enpresa arratiarra be egongo da azokan. 2017an sortu zan Torontile eta Emma Agilarrek kudeatzen dau. Proiektu solidarioa da, feminismoari lotua eta taillerak, zuzeneko estanzak, ikastaroak, diseinu eta ilustrazio lanak egiten ditu. Aurtengo kamisetako irudia papelean estanzatuko aukerea eukiko dau jaialdira hurreratzetan danak Torontileko postuan.

GoraKat-en salmahaian, arisautzako boltsa eta motxilak topauko dauz azokatxora hurreratzetan danak. Estibaliz Yuguerok diseinetan ditu barriz BaRock bitxiak. Batez be arrakadak topauko ditu interesdunak bere salmahaian.

Ez da jatekoa faltauko jaialdian. Crisla Sweets, U-Lovers & Mafaldo, Pernil salmenta postua, Baserriko denda, La Melosa eta Pescaito Frito Berria ekoizleak egongo dira jatekoa saltzean. Durangoko Crisla Sweets-ek, amerikar estiloko gozogintzea egiten dau; U Lovers and Mafaldoren furgone-

Kontzertuak, gunen bitan egingo dira; Gudarien Plazan eta Kallartean, Zubizarrako parkinean. Gudarien Plazan eszenaleku nagusia egongo da eta bertan izango dira arrastietako kontzertuak, karpa handi baten azpian



Little Odetta taldea.

tan hanburgesa *gourmetak* salduko dira; pernileentzat, Pernil salmenta postua egongo da; Baserriko Dendak euskal *fast food* tradizionala, taloak barbarako, eskaintzen ditu; La Melosa furgonetan patata tortillea erosi ahal izango da eta Pescaito Frito Berrian, izenak berak adierazoten dauan moduan, arrain piritua.

"Errekako alde biak erabiliko doguz aurtan be, igaz lez, zapatu eguerdi eta arrastiko lehen orduetan musika emonaldiak izango dira bertan, baina gastronomia izango da leku honetako ardatz nagusia jateko aukera ugari izango da-ta. Ekitaldiaren leku lez, naturan lekua izatea ahalbidetzen dauan udalerria da Areatza, bere

ingurunean bisitetako moduko baliabideak eta Gorbeia Parke Naturean dagoan ostatu eskaintza zabala daukana eta turismo handiko espazioetatik kanpo dagoana" dinoe antolatzaileek.

Barikuko kontzertuak
Euskal Herriko Amann & The Wayward Sons taldeak zabalduko

dau jaialdia, barikuan, 19:00etan. Pablo Amann buru dauan Bilboko banda honek, blues, soul eta rock 'n' roll-a nahasten dituan musikea egiten dau 2016tik. Israel Santa-mariak (tekladuak), Jon Ander Ma-dinak (bajua) eta Txema Aranak (bateria) osotuten dabe taldea.

Ondoren, 20:30ean, Frantziako Little Odetta taldearen txandea izango da. Taldeak 1960-1970 hamarkadetako rhythm & blues afroamerikarrear oinarritutako musikea egiten dau. Audrey Lu-riek, taldeko liderrak, sortutako kanta dira, rock-a, blues-a eta soul-a nahastuz eta gaur-gaurko musikea eginaz.

Gaueko 22:15ean, The Cinelli Brothers talde britaniarrak joko dau. Erresuma Batuko Blues Band of the Year izan zan 2024an. Eu-ren soinuak nahasten ditu soul eta blues estiloko musikea gaur egun-go ukitu bategaz eta The Beatles eta Stevie Wonder lango musikari mitikoen eraginagaz.

Barikuari amaierera, Datcha Mandala talde frantziarrak emon-go deutso 00:15ean hasiko dan kontzertuagaz. Hirukote honek definiduten dau bere musikea "rock psikodeliko eta heavy blues" moduan. 1970 hamarkadan ins-pirauta, gaur egungo heavy rock irakinaldia be badakarre.

Zapatuko kontzertuak

Zapatu eguerdi partean Kallartean-en hiru taldek joko dabe: Frantziako Dirty Deep taldeak 13:00etan; Bad Touch britainarrek 14:30ean, eta AEBko Jason Kane & The Jivek 16:00etan. Atzen talde bi honeek beste emonaldi bana egingo dabe gauean Gudarien Plazan.

Dirty Deep, Victor Sbrovazzo-ren proiektua da. 2010ean hasi zan bera bakarrik blues musikea egiten, 2012an Geoffrey Sourp gehitu zan bere hip-hopak eragindako erritmoakaz eta hirukote bihurtu zan taldea 2018an, Adam Lanfrey baju-jolea sartu zanean.

Bad Touch britaniarrek, rock, country eta blues estiloak nahas-ten ditue euren kantuetan. Stevie Westwood da taldearen aho-tsa. Dan Seekings-ek (gitarrea), Michael Baileyk (bajua), Brad Newlands-ek (bateria) eta Peter Lancek (gitarrea) osotuten dabe taldea.

Jason Kane & The Jive talde-ko kideak barriz, San Antoniotik (Texas) datoz. Funk, blues eta soul zatiak, rock 'n' roll-eko fon-doagaz dakarre. Europan zehar bira bat egiten dabiz ikuskizun kementsu bategaz.

Iluntze-gauean, Gudarien Pla-zako agerleku nagusian izango dira kontzertuok. 18:30ean, Arnau and The Honky Tonk Losers taldeak joko dau. Igorren bizi dan Arnau Coderch buru dauan talde honek, country/americana estiloko mu-

Country, blues, soul eta
rock estiloko musikeari
ondo joakozala Euskal
Herriko garagardaoa
eta 0 kilometroko
jatekoa dala onena uste
dabe antolatzaileek.
"Areatzako Musik and
Beer jaialdian bertako
ekoizpena sustatzen
dogu, 0 kilometroa,
beste modu batera
esanda"



Burning, Madrilgo talde mitikoa.

sikea egiten dau. Taldeak atera barri dau bere lehenengo diskoa *Second Chances* izenekoa eta kri-tika onak jaso ditu.

Ondoren, 20:00etan, Galiziako Zalomon Grass taldea igongo da eszenalekura. Energia, emozinoz eta izerdiz betetako ikuskizuna agintzen dau banda honek. Euren estiloa cosmic blues lez definidu-ten dabe bandakoek. Rock kla-sikoan oinarrituta, elementu pro-gresibo eta psikodelikoak batzean ditu galiziarren soinuak.

Madrilgo Burning talde eza-gunak joko dau gero, 22:00etan. 1974an sortuta, bere jatorrizko esti-loa manteniduten dau talde betera-noak: rock and roll klasikoa, rhythm and blues eta bluesa nahastuz.

Ostean, goizen Kallartean-en joko daben Bad Touch eta Jason Kane & The Jive taldeek beste kontzertu bana eskainiko dabe 00:00etan eta 01:45ean, hurrengo hurrengo.

Euskal Herriko garagardaoa

Country, blues, soul eta rock estiloko musikeari ondo joako-zala Euskal Herriko garagardaoa eta 0 kilometroko jatekoa dala onena uste dabe antolatzaileek.

"Areatzako Musik and Beer jaial-dian bertako ekoizpena sustatzen dogu, 0 kilometroa, beste modu batera esanda". Hori dala-ta, "gu-rean izango diran janari furgone-ta bi Bizkaikoak bertakoak izango dira eta bertako produktuak sal-duko ditue. Eukiko dogun karpa gastronomikoan egongo diran produktoreak be ia danak Eus-kal Herrikoak izango dira" azaldu dabe antolakuntzatik.

Gauza bera gertatzen da gara-gardaoagaz. "Euskal Herriko gara-gardao artisaua izaten dogu jaial-dian. Honeek be 0 kilometrokoak. Gertukoaren konsumoak gure lurraren etorkizuna bermatzen dau. Gainera aurten Basque Beer alkarteak parte hartuko dau jaial-dian eta bera izango da babesle nagusietako bat. Momentuz, 21 dira Euskal Garagardoaren Elkar-tea osotuten daben markak, eu-ren artean dago BBP garagardaoa, gure jaialdiko parte garrantzitsua izan dana".

Basque Beer da babesle na-gusietako bat aurten eta Euskal Garagardoa-Basque Beer gara-gardoek, berezi egiten dabezan ezaugarri amankomunak daukiez.

"Ekoizpen prozesuak hasikeratik amaierara zaintzearen emaitza dira horreek. Mimos jagoten do-guz lehengaien aukeraketea eta ekoizpen prozesua, sabore eta esperientzia bakarrak eskaintzeko helburuagaz. Basque Beer bat hartzean dozunean, bere kalida-dea igarriko dozu zurrupada bako-txean. Ekoizpena Euskal Herrian kokatzen da, bertako lehengaiak eta hornitzaileak lehenetsiz eta lurraldeko sustapen ekonomiko eta gastronomikoa bultzatuz. Pribilegiuak gara eskaintza gas-tronomikoari jagokonez eta hori, bere jatorria galdu barik geroz eta aukera gehiago eskaintzen dituan garagardaoaren sektoreari be aplikau deikeogu" dinoe Basque Beer-ekoek.

Basqueland Brewing be oin arte lez jaialdian egongo da. Gaur egun 25 garagardao baino gehia-go ekoizten ditu eta sari ugari jaso ditu: Bartzelonako Beer Challenge Lehiaketako Garagardogile One-nari saria 2021ean, 2022an eta 2024an, eta Espainiako estaduko txapelketako lau urrezko domina 2017an, 2019an, 2020an eta 2021ean, esate baterako.

HASTERA DOA
EUSKARALDIA
*Elkar mugituz
egingo dugu*



HASIERA EKITALDIA
AREATZA

NOIZ: MAIATZAK 15

NON: Gudarien Plazan
18:00 Txapak batu
Txitxi-burduntzia
19:00 Argazki herrikoia

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA
EUSKARALDIA
*Elkar mugituz
egingo dugu* **Areatza**

Maiatzak 24, 19:30
Udaletxeko areto nagusian
Mikel Martinezen *Hamalau*
eta Patxo Telleriaren
Txizatoki bat
eszenalekuan antzezlanak





**SAN ISIDRO
JAIK
ZEANURI
2025**



**MAIATZAREN 15a, EGUENA
San Isidro eguna**

11:30 PLAZAN
UMEENTZAKO JOLASAK
12:00 MEZA NAGUSIA SAN ISIDRON
13:00 ARRIKIBAR dantza taldearen emonaldia
herriko TXISTULARIAKAZ.
18:00 IDI PROBEN ERAKUSTALDIA
• LUIS URIAGEREKA (Bakio)
• JON ELCEZABAL (Urduliz)
• MIKEL VEGA (Lemoiz)

MAIATZAREN 16a, BARIKUA

19:00 ANDRA MARI ELIZAN
XLIV. BBK ABESBATZEN KONTZERTUAK
• ORFEÓN DE SESTAO.
• ZEANURIKO ABESBATZA.
• ORFEÓN DE URI-OSTE (Ortuella).

MAIATZAREN 17a, ZAPATUA

10:00-14:00 ABERE, ARTISAU ETA NEKAZAL PRODUKTUEN AZOKA
BURUTUKO DIREN EKINTZAK:
• GAZTAIA ECITEA: Enrike Etxebarria
• KODANE PIKAU: Pabl Astondoa.
• ARDI MOZTEA: Mikel Etxebarria.
• ARTXO TXULETA DASTAKETA.
• ARGAZKI ERAKUSKETA (Pleno Aretan).
Zeanuri 2025 - "Bertan lan bertan bizi" (Herriko Argazki Taldea).
• Enkarterrietako Billano txakur arraza erakusketa.
12:00 ARDI MOZKETA erakustaldia. Mikel Etxebarria.
13:00 ABEREEN SARI BANAKETA PLAZAN
Goiz guztian zehar PLAZA INCURUAN.
Herriko TXISTULARIEK.
12:00-14:00 HERRIAN ZEHAR.
ARRAPALADAN trikitaliak.
19:00 ZÜTTIK Elektrotxaranga.
22:30 ARGITU erromeria eta ondoren DJ Lander.

MAIATZAREN 18a, DOMEKA

10:00etatik aurrera
"Aire zabaleko pintura ikastaro praktikoa" (Plaza mugatuak).



Gure
ikastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzak Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Waur Wezwuntza

Lehen Wezwuntza

Dorrigorrezko Digarren Wezwuntza

Datxilergoan

Wezwuntza Ziuloan


2 urtatu 13ra

649 979 115



inigoirua@begitu.eus

IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN





AREATZA

MUSIK&BEER 2025

MUSIKA ETA GARAGARDO
FESTA INTERNAZIONALA
★★★★★
INTERNATIONAL
MUSIK & BEER FESTIVAL

>>DOHAINIK!! FREE!!<<

MAIATZAK
30
MAY

GUDARIEN PLAZA

19:00 >AMANN & THE WAYWARD SONS (EH)<

20:30 >LITTLE ODETTA (FR)<

>THE CINELLI BROTHERS (UK)< 22:15

00:15 >DATCHA MANDALA (FR)<

MAIATZAK
31
MAY

KALLARTEAN

>DIRTY DEEP (FR)< 13:00

>BAD TOUCH (UK)< 14:30

16:00 >JASON KANE & THE JIVE (USA)<

GUDARIEN PLAZA

18:30 >ARNAU AND THE HONKY TONK LOSERS (EH)<

20:00 >ZALOMON GRASS (GAL)<

00:00 >BAD TOUCH (UK)<

22:00 >BURNING (ESP)<

01:45 >JASON KANE & THE JIVE (USA)<

   / CRAFT BEER / GOOD MUSIC / FOODTRUCKS / ARTISAUTZA AZOKA /

 +MORE INFO+



AREATZA
MUSIK & BEER



EUSKADI



Bizkaia

bbk

BASQUE
BEER



Ekin



Areatza



Gorbela

GARINA



Rodimer



ENEKO



Euzko Kontseilua



Euzko Taberna



KIRRU



berria



Deia



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU?

GERO ETA GEHIAGO GARA!

-  1.643 JARRAITZAILE
-  419 JARRAITZAILE
-  2.660 LAGUN
-  55 JARRAITZAILE



begitu
eus



EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN ETA SARI POTOLO HONEEK IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezkerro, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) garagarriaren 28ra arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

SARIAK

A

ENEKO

Eneko Atxaren Larrabetzuko ENEKO jatetxean SUTAN menua maridajeagaz lagun birentzako.



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonia: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

HOTEL ORDUÑA PLAZA



B

HOTEL BALNEARIO ORDUÑA PLAZAN

astegoien pasa: gau bi,
zirkuitua, gosaria eta
masajea lagun birentzako.



begitu

**EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN
ETA SARI POTOLO HONEEK
IRABAZI!**

Begitu-lagun egin ezkerro, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) garagarrilaren 28ra arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

SARIAK

A ENEKO

Eneko Atxaren Larrabetzuko ENEKO jatetxean SUTAN menua maridajeagaz lagun birentzako.

B

HOTEL ORDUÑA PLAZA

HOTEL BALNEARIO ORDUÑA PLAZAN astegoiaren pasa: gau bi, zirkuitua, gosaria eta masajea lagun birentzako.

Ez galdu aukerea!!

begitu@begitu.eus



EUSKARALDIA ARANTZAZUN

Maiatzak 15, eguena

19:00etan, Euskaraldiari hasiera eman.

- Bertsoa
- Txapak banatu
- Brindisa txokolateagaz!

Maiatzak 18, domeka

11:30ean, herri-kirolak gazteentzat.

13:00etan, argazki herrikoia plazan.

13:30ean, Kahoot herrikoia hitanoari buruz.

*Gazteak (16 urtetik behera).

*Nagusiak.

SARIAK EGONGO DIRA
17:00etan, filma euskeraz kultur aretoan.

Oilasko ihesa: Nuggetaren egunsentia.



EUSKARALDIA

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

Elkar mugituz egingo dugu

Maiatzaren 15etik 25era, udal txarte portalean:

UPIDEKO BERBEN KUTXA

Udako zenbat berbe enpatzen duzu?
Zein da guren guretatzen jarduera (Udako berbe)?
[Gure eta sariak]

MAIATZAK 25, DOMEKA

10:30 Ubidako berben kutxa zabaltzea

11:00 Mendi-ibilaldia Motxotegira

12:00 Tontorrean 2025eko Euskaraldiko kanta, Legutiotik eta Otxandiotik igotako herriarrekina batera






EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*



*Elkar mugituz
egingo dugu*

ZEANURI

Maiatzak 16, barikua
17:30ean hasita mural pintaketa,
umeentzat, musikaz girotuta eta
ondoren argazkia.



EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*

**2025eko
maiatzaren 15etik 25era**

**EUSKARA
gure
LURRA**



EUSKARALDIA

DIMA



Ubidestroik hiru lasterketa ditu aurten, 28 kilometrokoa, 20koa eta umeentzako

Erredakzioa

Ubidestroitxo umeen lasterke-
tea 17:00etan hasiko da plazan
eta 1,6 km-ko ibilbide zirkularra

Lasterketen egunean jai giroa egongo da herrian. Goizean zehar, puzgariak, txosnea eta talogileak egongo dira eta 15:30etik 18:30era, gitxi gorabehera, elektrotxarangea.



Nafarroa Irekiako finala ez eben irabazi Amaia Aldaik eta Miriam Arrillagak

Erredakzioa

Salsamendik markau eban partiduaren erritmoa eta Aldai eta Arrillaga ez ziran eroso sentidu partidu osoan eta nahiz eta arratiarrak eta gipuzkoarrak esperientzia handiagoa izan, nafarek baino gehiagotan egin eben kale. Partidu gogorra izan zan eta Aldai eta Arrillaga, momentu baten, tantu batera egon ziran (15-16), baina ezin izan eben bardinketea lortu, txapela lortzeako aukerea galduz.

Balorazino ona

Finala irabazi ez arren, hainbeste

publiko hurreratu zala-ta, partidutik harago doan balorazino ona egiten dau dimoztarrak. "Balorazinoa nahiko positiboa da. Azkenean 1.100 persona bildu ziran Labriteko frontoian eta 450 persona inguru geratu ziran kanpoan sarrera barik eta horrek esan gura dau andron pelotea hazten dabilela, jenteak badaukala interesa gure partiduak ikusteko... eta guk igarten dogu gero eta jente gehiago batzean dala frontoietan, ez bakarrik finaletan, baita ligaxkan eta aurrekanporaketetan be. Nik uste dot andrazkoon pelotea ez da bakarrik bizirik dauala, gorakada handia daukala baino. Maila aldetik be, maila handiagoan gabiz jokauten ez bakarrik oin arte jokauten ibili garanok, baita hainbat pelotari atzetik etorri diranak be sartu dira gure mailan eta horrek poztasun handia emoten deusku pelotarioi" azaldu deutso Aldaik BEGITURI.

Andrazkoen Arratia A taldeak husna bardindu eban AEM Lleida Bren kontra igoera promozinoko lehen partidua

Arratia A eta AEM Lleida Bren arteko partidua Urbietan.

Erredakzioa

Andrazkoen Arratia B taldeak osteratar hilaren 10ean jokatu eban Urbietan ligako atzen partidua Indartsu taldearen kontra eta bana bardindu eban. Kanpotarrak aurreratu ziran bigarren zatia hasi eta segiduan; arratiarrek 67. minutuan bardintzea lortu eben Uxue Aurtenekek sartutako gola-

Gizonezkoen Arratia B taldeak hilaren 10ean jokatu eban Urbietan Montefuerte A taldearen kontra eta 2-1 irabazi eban. 1-0 aurreratu ziran arratiarrak lehen zatian Jokin Romerok 44. minutuan sartutako golari esker; bigarren zatian Iker Olibares zeaurriztarrak bi eta hutsekoa sartu eban 75. minutuan eta kanpotarrak 89. minutuan sartu eban bi



ORIENTAZINO

Arratia Raid taldeak orientazino proba egingo dau Igorren

Maiatzaren 17an, zapatua, orientazino proba herrikoia egingo da Igorren, Arratia Raid *orienting* zaleen taldeak antolatutakoa.

Erredakzinoa

Oin dala urte batzuk, Arratia Raidek antolatutako hainbat proba egiten ziran eskualdean eta honeen buelta ospatu dabe antolatzailiek: "Orientazinoa bueltan da Arratian, animau!". Goizean zehar egingo dan proba honetan, mapea eta iparrorratza erabilita, partaideek hainbat baliza topau beharko ditue Igorren antolatu dan "zirkuitu urbanoan", ordu eta erdiko tartean, banaka zein, gehienez be, lau personako taldeetan. Partaideak 11:00etan egon beharko dira Igorreko Kultur Etxeko sarrean, probarean azalpena entzun eta honetarako materiala jasoteko. Balizak topetan 11:30ean hasiko dira eta tartean, "proba bereziak" egongo dira Xabier Iturriaga antolatzailiek aurreratu

dauanez. Berbarako, taldekide bat begiak tapauta egotea edo balizan eragiketa matematiko bat egin behar izatea. Probak beteta,



13:00etarako bueltau beharko dira parte-hartzaileak urtekera puntura. Gero, mokautxoia egongo da parte hartu daben banako zein taldekide guztientzako.

Izen-emotea

Izena orientazino probaren karteleko QR kodearen bitartez emon daiteke edo labur.eus/orientazioigorre helbidean. Banaka edo taldeka egin daiteke inskripzioa eta gero, heldu bakotxeko 5 euro eta 17 urtez azpiko partaide bakotxeko euro 2 ordaindu beharko dira ES49 2095 0154 50 9114222084 kontura transferentzia eginaz. Izena emoterakoan taldearen izena ipini behar da. Prezio barruan sartzean dira mapak, aseguruia eta mokautxoia.

MOTORRAK

Dimako III. Cross Country motor lasterketea hilaren 17an jokatu da

Erredakzinoa

Maiatzaren 17an jokatu da Dimako Cross Country lasterketearen hirugarren edizinoa, Dimako motor taldeko lagun batek antolatuta eta Arratia eta Arratia inguruko talde baten laguntzeagaz. Lasterketea, Euskadiko Motoziklismo Federazioko Cross Country Txapelketarako puntuagarria da. Herrigunetik urten eta basotik zehar zirkuitu bat egingo dabe motordunek ordu biz eta buelta gehien emoten dauanak irabaziko dau.

Pilotuak, 12:00etarako egongo dira Diman, ordu horretan motoren berifikazioak egingo dira-ta frontoi txikian. Gero, 14:00etan, beraldi teknikoak egongo da eta ostean, 14:15ean, zirkuituaren errekonozimenturako buelta bat egingo dabe partaideek.

Lasterketea 15:30ean hasiko da. Urtekerea Iturrigorri azpiko landan izango da, hortik depositura igongo dira partaideak, kanposantu atzetik urten eta eleizatik gora joango dira. Zirkuitu zirkularra da, eta Biteriño auzoraino helduten da.

Pilotuen sexu eta adinari jago-

kienean, lasterketa honetan lau kategoria dagoz. Gizonezkoentzat dira hiru kategoria, edadearen arabera: Junior, 23 urtetik beherakoak edo kadeteak; Senior, 23 urtetik gorakoak eta Beteranoak 35 urtetik gorakoak; eta andrazkoentzat kategoria bakarra dago Feminak izenpean, eta edozein edadetako andra pilotuak lehiatuko dira bertan. "Ehun partaide inguru espero dira aurten. Aurreko urte bietan 90-100 pilotu baino gehiago egon ziran eta izen ona hartu dau lasterketeak" azaldu deutso BEGURI Joana Kamiruga antolakuntzakoak. "Giro ederra egongo da egun guztian zehar, jentea animetea espero dogu kirol eta lasterketa honegaz gozatzeko" gehitu dau.



TXIRRINDULARITZEA

Itzulia Women lasterketearen bigarren etapeak Igorren izango dau helmugea

2025eko Itzulia Women lasterketea maiatzaren 16an hasiko da eta hiru etapa izango ditu. Bigarrenak, maiatzaren 17koak, Igorren izango dau helmugea.

Erredakzinoa

19 taldetako 114 txirrindularik hartuko dabe parte; World Tour kategoriako 14 taldek tartean. Arratiako Ziklista Elkartea arduratuko da segurtasuna bermatzeaz. Hiru etapa ditu Itzuliak: Zumarraga-Agurain, Ugao-Igorre eta Donostia-Donostia. Bigarren etapa, Ugaon hasi eta Bizkaitik 116 kilometro egin ostean, amaituko da Igorren. Etapa hau aurtengo edizinoko taktikeenetako bat da eta ibilbide zorrotza dauka. Izan be, lau mendate puntuagari-Bikotxgane, Lamindao, Gerekiz eta Arrieta- eta esprint hobaridun bi, Larrabetzun eta Lemoan, dagoz ibilbidean, sailkapen orokorrean ebatzigarriak izan daitezkeanak. EITBk, eitb.eus-en eta ETB1en bidez, hiru etapak emongo ditu, zuzenean, 12:00etatik aurrera.

Arte, Dima eta Lemoatik be pasauko da

Ugaoko Udariaga kalean hasiko da, 10:24an, maiatzaren 17an, zapatuz, andrazkoen Itzuliaren bigarren etapa. 116 kilometro izango ditu, eta Igorren amaituko da, 13:20tik 13:40ra bitartean; ziklis-



tak Bizkaian hasiko dira, Arabara pasauko dira gero, eta, azkenean, Bizkaira sartuko dira, barriro. Etapako lehen kilometroetan, Arrankudiagan, Aretan eta Laudion ibiliko dira, Orozkora heldu aurretik. 26,6 kilometroan, ziklistek 3. mailako Bikotxgane igongo dabe. Jatsierea amaitutakoan, Artean izango dira eta ostean Lamindaora igongo dira. Lamindao 2. mailako mendatea da, lau kilometrokoa, eta batez beste, %4,9ko aldatsa dauka. Etapako 36,3 kilometroan izango da. 71. kilometroan, 3. mailako Gerekiz mendatea dago. Ostean, 80,1 kilometroan, 3. mailako Arrieta igongo dabe ziklistek, eguneko laugarren eta azken mendate puntuagarria. 95,9 eta 110,3 kilometroetan, hurrengo hurrengo, hau da Larrabetzuko eta Lemoako esprint bereziak jokatu ditue, Igorren helmugara heldu aurretik.

BOLA-JOKOA

Arratiako Komarkala Bola Txapelketako lidertzan dago Zeanuriko taldea

Hilaren 10ean jokatu zan Oban txapelketako laugarren tiraldia eta Zeanurik irabazi eban 542 puntu eskuratuta.

Erredakzinoa

Martian hasi zan Lemoan txapelketea eta hilaren 10ean laugarren jardunaldia jokatu eben Arratiako sei taldeek. Txapelketea lau txakinetara jokatzen da. Zeanuriren ostetik Elorriaga sailkatu zan 519 puntugaz, hirugarren Obak egin eban 517gaz, laugarren Lemoak 484gaz, bosgarren San Kristobalek 444gaz eta seigarren Bargondiak 436gaz. Lau tiraldiren ostean eta txapelketea amaitzeko bakarraren faltan holan dago sailkapen orokorra: 1-. Zeanuri 2.242 puntu; 2-.

Lemoa 2.185 puntu; 3-. Elorriaga 2.131 puntu; 4-. Oba 2.089 puntu; 5-. San Kristobal 1.996 puntu; 6-. Bargondia 1.889 puntu. Datorren tiraldia, txapelketako atzena, maiatzaren 17an izango da Elorriagan (Lemoa), goizeko 10:00etan. Ostean bazkaria eukiko dabe parte hartzaileek.



BERTSOLARITZEA

Finalean kantau eban Ekhi Zuluaga igorreztararak Gorka Pagonabarragagaz batera Gaztetxeak Bertsotan lehiaketan

Erredakzinoa

Finala, maiatzaren 3an jokatu zan Gernikako Gaztetxe barrian. Hiru bikote lehiatu ziran finalean: Aroa Arrizubietak eta Unax Aizpuruak, June Aiestaran eta Maddi Aiestaran, eta Gorka Pagonabarraga eta Ekhi Zuluaga igorreztarra.

Sariketea Arrizubietak eta Aizpuruak irabazi eben, publikoak holan ebatzita. Baina finalera heldutako beste bikote biek be izan eben saria. Zuluagak eta Pagonabarragak Gazte Asanbladearen Egurre saria jaso eben, "egur gehien emon eban bikotearen saria", hain zuzen be.

Bertsolaritza eta Gaztetxeak

Gaztetxeak Bertsotan bertso-sariketea martian eta aprilean zehar egin zan, Euskal Herriko hainbat gaztetxetako asanbladakaz alkarlanean. Ekimenaren helburua, "gaztetxeen inguruan dabilzan belaunaldi barriak bertsozaletzea edo bertsoakazko hurrentasuna sentidu arazotea" da, baina baita "bertsozalea dan edo bertso munduan dabilan jenteak gaztetxeakazko eta politikeagazko hurrentasuna sentidutea be". Horrerik lotuta, sariketeak "bultzadea emon" gura izan deutse gaztetxeei, "bizi daben erasoaldian".



ZIRKUA ETA MUSIKEA

Zirku tailerra eta Kitturen emonaldia Artean

Erredakzinoa

Maiatzaren 16an, barikua, 17:00etan, Udalak antolatuta, Zirku tailerra egongo da plazan. Hurrengo barikuan, hilak 23, Kittu taldeak girotuko dau Artean euskal kantakaz.

Zirku tailerra Zirkugintza konpainiak eskainiko dau. Elssie Xalbador eta Keko Salvadorrek sortutako konpainia honek "arte eszenikoen eta zirkuaren sustapenean, hedapenean, ikerketan eta balioan oinarritzen dan lana" egiten dau. Ume txikien txokoa, aereoak, malabareak eta orekak ekarriko ditue Arteara. Zirku tailer irekia da eta eda-de guztietako jentearentzat zabalik egongo da. Plazan egingo da, eguraldi txarra egin ezkerro, frontoian.

Kittu taldea

Hurrengo barikuan, hilak 23,

19:00etan, Kittu Zornotzako laukoteak emonaldia eskainiko dau plazan. Taldeak Euskal Herriko gaurko eta betiko kantuak joko ditu bere estilo propioan, Euskal Herriko betiko instrumentuak erabilia.

Igor Lauzirikak (akordeoia), Markel Atutxak (perkusinoa), Unax Rodriguezek (dultzaina) eta Aritz Labradorrek (txirulea eta bonboa) osotuten dabe taldea. Aritz Labrador Areatzako Bandaren zuzendaria be bada.



JENTILAK DIMAN

Izaki mitologikoz betetako iluntze-gaua, hilaren 31n izango dan *Jentilak Diman* ekimenaren beste edizino baten

Maiatzaren 31n dimoztarrek bizitza emongo deutsee izaki mitologikoei Baltzola eta Indusiko parajeetan. Izan be, Txumuluxueta Kultur Elkarteak, Dimako Udalaren laguntzeagaz eta edadekoen koruaren, jantza taldearen eta herriko musika-tresna jotzaileen eta kanpoko aktoreen ekarpenakaz, *Jentilak Diman 2025* antolatu dau.

Erredakzinoa

Guztira 100 bat lagunek hartuko dabe parte antolaketa eta egitarauan.

Aurtengo edizinoan, musikeari eta bertsoari emongo jako protagonismoa. Alde batetik, "musika-tresnak izango dira protagonista" eta bestetik, "Oihana Bartra izango da konbidadua, eta, batzuetan bakarrik eta beste batzuetan Ibon Izagaz jardungo dau bertsotan" azaldu deutso BEGITURI Gotzon Aurrekoetxea antolakuntzakoak.

Izaki mitologikoen festa

Ekitaldiari Baltzolan emongo jako hasikerea 18:30ean. Dimako eskoletatik Baltzolara joateko autobusak egongo dira 17:00etan, 17:30ean eta 18:00etan. "Baltzolan ez da egingo ikuskizunik, baina jentea heldu bitartean zeozer egongo da" dino Aurrekoetxeak.

Ondoren Baltzolatik Indusira joango dira partaideak eta bide horretan ikuskizunak eta izaki mitologikoen agerrerrak ikusi ahal izango dira, Sugoiaren agerrerea haitzulo barruan, eta bidean, basoetako izakienak.

Aurten barrikuntzak egongo dira personaiei jagokienean eta "inoz ikusi bako agerpenak" egongo dirala prometidu dabe antolakuntzatik. Jantzak eta txalapartea eta trikitixearen musikea be ez dira faltauko.

Indusin amaituko da ibilbidea 21:00ak inguruan. Bertan Akelarrea antzetzuko dabe eta ostean, txitxi-burduntzia egongo da. Akelarrearen ostean, txitxi-

burduntziagaz batera, Eingo taldeagaz erromeria egongo da.

Ibilbidea egin barik Akelarrea ikusi gura dabenek be izango dabe horretarako aukerea. Indusira joateko autobusak egongo dira Dimako plazatik; 21:15ean lineakoa, eta egun horretan Akelarrera joateko beren-beregi ipinitakoak, 22:00etan, 23:00etan eta 24:00etan.



KULTUREA

Antxo ta Pantxa pailazoeak antzerki ibiltaria egingo dabe eta Pettik kontzertua emongo dau Diman

Erredakzinoa

Bariku txiki ekimenaren barruan, maiatzaren 16an, 18:00etan, Iker Urriaga eta Ainara Murgia Antxo ta Pantxa pailazoeak, *Papertxori* umeentzako antzerki ibiltaria eskainiko dabe frontoi txikitik hasita.

Papertxori antzezlanean, Antxo eta Pantxa euren "triziklo magikoagaz" herrian zehar ibiliko

dira, magia, musikea, jantzak, jolasak eta hainbat ekintza eskainiz.

Heldu Kulturari

Dimako umeei aisialdian arte eszenikoak eskaintzeko sortu zan Bariku txiki Titi ta Lolo alkarteak, Dimako Udala eta Liburutegiaren alkarlanari esker. Oin horreetxek eragileok helduei zuzendutako proiektua ipini dabe martxan

Heldu Kulturari izenpean.

Proiektu honegaz sorkuntzako hainbat diziplina ekarri gura dabez: musikea, antzerkia, txotxongiloak, ipuin kontaketak, magia... helduentzat.

Heldu Kulturari programearen barruan Petti abeslari nafarrak kontzertua emongo dau maiatzaren 18an, eguerdiko 13:00etan Abaroa Aretoan.

KOTXEPIN

Umeentzako antzerkia eta ipuin kontaketea Kotxepin Kultur Etxean

Erredakzinoa

Maiatzaren 23an, *Patxintxiketan*, urtaroen bidaia umeentzako antzerkia eta 28an, Ane Gebararen *Oihaneko tira-birak* ipuin kontaketea egongo dira Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Ikuskizun biak 18:30ean izango dira.

Bizkaiko Urtxintxa eskoleak dakar *Patxintxiketan*, urtaroen bidaia 5 eta 9 urte bitarteko umeentzako lana. Bertan, antzerkia, abestiak, jantzea eta jolasak batzean dira, umeek parte hartu dagien. "Parke eder baten, non umeek jolasten dabene eta natura loratzen dan, Patxintxi urtxintxak gidatzen ditu bere hiru lagunak Urtzi, Ilargi eta Udane, barrez eta poztasunez beteriko eguneroko abenturetan. Ha-ta guzti be, bere mundu baketsua arriskuan dago Kutsadura Dok-torea parkera iristen danean"



dino sinopsiak.

Ipuin kontaketea

Hilaren 28an barriz, Ane Gebara ipuin kontalaria 4 eta 8 urte bitartekoentzako *Oihaneko tira-birak* kontaketea dakar. "Motxila hartu eta ni banoa! Oihanean murgilduko naz animalia guztiak batera. Bertan, zuzatetara igongo naz, oihanaren sakontasuna ikusi ahal izango dot, eta ostro handi eta berde horreen usain freskoaz gozatu. Lehoiaren pare-parean jarri eta oihanaren erregina bihurtuko naz! Putzu sakonena topauko dot, narrutsik bainauko naz eta lehorteke hondartza bakarti baten zabalduko dot nire toallea. Gauez, iluntasuna eta isiltasunagaz batera hontzen, saguzarren eta kilkerren soinuagaz batera hartuko dot loa" dino kontalaria aurkezpen modura.

ZINEGOAK

LGTBIQ+ tematikako sei film labur egongo dira ikusgai Igorren

Erredakzinoa

Zinegoak Bilboko LGTBIQ+ Nazinoarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko sei film labur egongo dira ikusgai Igorrenko Lasarte Aretoan, maiatzaren 18an, 20:00etan. Maria Morenoren *¿Dónde estás?*, Angel Moralesen *Arrecife*, Enock Carvalhoren eta Matheus Fariasen *Queimando por dentro*, Amie Song-en *Three*; Ander Iriarteren *Judoka* eta Ane Ines Landeta eta Lorea Lyons-en *Azkena* dira ikusgai egongo diran filmok. Jatorrizko bersinoan, euskerazko azpitutalakaz ikusi ahal izango dira. Jatorrizko bersinoan euskeraz danean, gaztelaniazko azpitutuluakaz egongo dira ikusgai.

Sinopsiak

Maria Moreno Novoa zuzendari nafarraren *¿Dónde estás?* 14 minutuko filmak, Nahia eta Lauraren bidaiatxo kontetan deusku. "Udako atzen asteen, 25 urteko Nahia eta Laura furgonetan doaz Nafarroako iparraldeko errepideetatik. Nerabezaroko ametsak bete barik dagoz, horrek bide desbarnetatik eroan daikezan arren" dino sinopsiak.

Murtziako Angel Morales Ba-

llesta zuzendariaren, 14 minutuko *Arrecife* filma be egongo da ikusgai. Filmak, trans kolektiboaren barruan, hain bisibilizauta ez dagoan gizon trans baten sexu aldaketa prozesua kontetan dau. "Angel mastektomia egiteko zorian dan persona trans bat da, 89 urteko amamaren etxean bizi dana".

Enock Carvalho eta Matheus Farias zuzendari brasildarrek 16 minutuko *Queimando por dentro* produktzioa dakarre jaialdira. Jatorrizko bersinoan portugesez da euskeraz eta gaztelaniazko azpitutuluakaz.

Amie Song zuzendariaren 2024ko *Three* film laburra be egongo da Igorren. "Etxean egindako bilera baten, oin dala gitxi Estatu Batuetara bere alabeagaz bizitera

joan dan txinatar jatorriko andra bat alabearen sekretuak lagun barriengandik ezkutuan mantenduten saiatzen da". Jatorrizko bersinoan txineraz eta ingelesez dago eta euskera eta gaztelaniazko azpitutuluak ditu.

Ander Iriarte oiartzundarraren *Judoka* filmak hiru hizkuntza dakar jatorrizko bersinoan: euskera, gaztelania eta wolof-a, hain zuzen be. "Nerabezarora momentu gaxa da. Eskualdeko judo txapelketarako egun gitxi falta diranean, protagonisteak eraso arrazista bat jasan eta krisian sartzean da. Lehiatu ahal izateko autokontrola eta autoestimua landu beharko ditu".

Ane Ines Landeta eta Lorea Lyons zuzendari bilbotarrek, *Azkena* izeneko 9 minutuko euskerazko film laburra dakarre. "Loreak ama eta amama ditu erreferentzia. Belaulaldi bi horreen bitartez, andrei amatasunari jagokonean esleitu jakien lotureari buruzko hausnarketak egiten dau. Oin berari jagoko ama izan ala ez ebaztea eta erantzun beharreko galderen erantzunak bilatzea".



DUNBA

Igorrenko eskolako Azoka Solidarioa

Igorrenko Inazio Zubizarreta eskolea

Datorren 2025eko maiatzaren 23an, barikua, arrastiko 16:30etik aurrera, Inazio Zubizarreta Eskolako Hezkuntza Komunitateak (IGE, ikaslegoa eta Hezkuntza Taldea), Azoka Solidarioa antolatuko dau eskolako patioan.

Ikusi dozuez herrian zehar gure kartelak hormetan eskegita? Herri osoa konbidetako asmotan diseinatu doguz. Eskolako LH 6. mailako ikasleek proiektu hau atera dogu aurrera, kursoan zehar egingadako lana eta ilusinoagaz.

Azokan bertan topauko doguzan gauzak oso prezio erakargarria izango dabe eta zuok parebako aukerea izango dozue, besteak beste, liburuak, jostailuak, panpinak eta eskuz egingadako gauzak lortzeako.

Aurreko urteetan moduan, "txikitxuenek" aukerea izango dabe



atzazalak eta arpegia margozteko, baita ule-apandegian txirikordak egiteko be. Aurton, henna tailerra be izango dogu profesional batzuen laguntzeagaz. Eta zerbitzu

horreek lortzeako, donazino txiki bat egin behar da.

Bertan meriendetako aukerea izango dogu. Geure familiek egindako bizkotxoak, tartak, gaile-

tak, madalenak, tortillak eta abar... salduko doguz.

Jakin behar dozue be Igorrenko merkatariek parte hartu dabela geure proiektuan eta oparitu deuskuezala hainbat produktu otzarak beteteko. Saskiak lortuteko boletoak azokan bertan erosi zeinkiez.

Azokan aterako dogun diru guztia Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak talderako izango da. Aitatutako proiektuan migratzaile eta gudatik iges egiten dabene errefujiaduei laguntzea opatzen jakie.

Maiatzaren 9an, LH6ko ikasleok Ongi Etorri Errefuxiatuak Taldea ezetuteko aukerea izan genduan; horrerik esker, ulertu dogu zoritxarreko errealdadeak existiduten dirala: gosea, guda



edota idea politikoengaitik jente askok alde egin behar dauala bere herrialdetik.

Badakigu geure ekarpen ekonomikoak ez dauala gauza askorik konponduko baina egin doguzan ahaleginek eta izan dogun ilusinoak gure inguruko baldintzak hobetzeko asmoa izan dabe lehenengo momentutik.

Konbidauta zagozie guztiok gure Azoka Solidarioan parte hartzeako. Animau! Ondo etorriak izango zarie-ta!



AGENDEA

MAIATZAK 15
ARANTZAZU

19:00etan, Euskaraldiari hasikerea emon: bertsoak, txapak banandu eta brindisa txokolateagaz.

AREATZA

09:00etatik 19:30era, urtekerea Gernikara Uparan jubiladuen alkarteak antolatuta. Bazkideak 35 euro, besteeak 45 euro.

Euskaraldiaren ekitaldia. 18:00etan, txapak batu eta txitxi-burduntzia; 19:00etan, argazki herrikoia. Plazan.

ARTEA

HAPŌari alegazioak egiteko epea hilaren 31ra arte Kultur Etxeko Erakusketa Gelan.

19:00etan, Euskaraldiaren hasikerea dala-ta argazkia ateratea udaletxean.

Hilaren 21era arte, Arteako udaleku irekietan izen-emotea. Udaletxean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Atzen eguna. Euskaraldian ahobizi edo belarriprest jarduteko izen-emotea zabalik *www.euskaraldia.eus* webgunean.

BEDIA

17:15etik 18:15era, *Yoga familian* 0-4 bitartekoentzat heldu batek lagunduta; 18:30etik 19:30era, *Yoga familian* 5 urtetik gorako umeentzat heldu batek lagunduta. Beatriz Calvoren eskutik liburutegian.

19:00etan, Euskaraldiaren hasikerea. Plazan alkartu txapakaz.

DIMA

19:00etan, Euskaraldiaren hasikera ekitaldia: aurkezpena, txapa-ipinte bateratua, mezuen irakurketea, Hamaikakoa, jantza, kantu eta bertsoak, Euskaraldiko kantua, argazkia, txokolatea...

IGORRE

17:00etan, bisita gidatua gazteleraz HAPŌaren erakusketan, Kultur Etxean.

18:30ean, *Generoa HAPŌn* berbaldi eta tailerra, Kultur Etxean.

18:30ean, arrakada tailerra Axular Herriko Tabernan.

19:30ean, trikitilariak Euskaraldiari ondoetorria, Gau Loratik hasita.

HAPŌ erakusketea eta herritarren buzoia urri lehenengoaren 30era arte.

Hilaren 20ra arte, emon daiteke izena udalekuetarako Kultur Etxean.

LEMOA

Odisea 1937 erakusketea Kotxepin Kultur Etxean hilaren 16ra arte.

18:30ean, Euskaraldia. Hasikera ekitaldia: amen arteko pelota partiduak, txapa janzte masiboa eta argazki erraldoia, frontoian.

Lemoako Harrobiren Udako Kanpusa bagilean. Izen-emotea zabalik. 2012tik 2019ra bitartean jaiotakoentzat. Izena 690 190 738 telefonoan (Eneko Etxebarria), *eneko.coordinador@gmail.com* helbidean edo *labur.eus/lemoakoharrobikanpusa* estekan emon behar da. Kanpusa bagilaren 23tik 27ra eta bagilaren 30etik garagarriaren 4ra izango da. Aste bat (100 euro) hamaiketakoa eta kamisetea barne edo bi (180 euro).

Hilaren 25era arte, "Eskatu euskaraz, irabazi saria" merkataritza kanpaineta 24 denda eta tabernetan. 978 sari.

ZEANURI

San Isidro. 11:30ean, umeentzako jolasak; 12:00etan, meza nagusia San Isidron; 13:00etan, Arrikibar jantza taldearen emonaldia txistulariakaz; 18:00etan, idi-proben erakustaldia.

Hilaren 18ra arte, Herriko Argazki Taldearen erakusketea Pleno Aretoan.

Hilaren 22ra arte izen-emotea udalekuetarako, *kultura@gardabera.com*-en.

ZEBERIO

Hilaren 18an egingo dan mendi martxarako izen-emotea Bizkaiko Mendi Federazioaren webgunean *https://bmf-fvm.org/eu/bbk-mendi-martxak/murga-zeberio/*.

Sanisidroak Ermitabarrin. 13:00etan, mezea; gero kopaua Taberna Zaharrean.

MAIATZAK 16
ARTEA

17:00etan, *Zirku* tailerra plazan. Euskaraldia.

DIMA

18:00etan, Bariku txiki. *Papertxori* kalejira parte-hartzailea frontoi txikian hasita; 19:00etan, hitano poteoa Axlor tabernatik abiatuta; 19:15ean, jaietako pelota partidua frontoi txikian.

IGORRE

16:00etatik 21:00etara, Euskaraldiari buruzko ihes gela, Lasarte parkean.

18:30ean, Igorreko Bardintasunerako II. Planaren aurkezpena Udal Liburutegian.

LEMOA

17:30ean, Gaztedi Lemoako Udalaren Gazteriaren Plan Estrategikorako bigarren batzarra Kotxepinen. Izen-emotea *labur.eus/lemoagazteplana* helbidean.

UBIDE

Podologia zerbitzua. Izen-emotea udaletxean.

ZEANURI

19:00etan, XLVI. BBK Abesbatzen Kontzertuak, Andra Marin. Zeanuriko abesbatza, Sestaoko Orfeoia eta Uri-osteko Orfeoia.

17:30ean, Euskaraldia: mural pintaketea, umeentzat, musikeagaz girotuta. Ondoren argazkia.

ZEBERIO

17:30ean, Amaia Egidazu ipuin kontalaria Hogarrean. Euskaraldia.

MAIATZAK 17
DIMA

III. Dimako Cross Country. 12:00etatik 13:45era, berifikazinoa frontoi txikian; 14:00etan, *briefing* berbaldi teknikoa; 14:15ean, zirkuituaren errekonozimentua; 15:30etik 17:30era, lasterketea; 19:00etan, sari banaketea. Ostean, zozketea.

IGORRE

Orientazino proba. 11:00etan, orientazinoaren inguruko oinarrizko azalpena; 11:30ean, probearen hasikerea; 13:30ean, orientazino probearen amaiereta.

LEMOA

10:00etan, Arratiako Komarkala Bola Txapelketako atzen tiraldia Elorriagan. Ostean bazkaria parte hartzaileek.

ZEANURI

10:00etatik 14:00etara, Abere, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokea eta herriko txistulariak zein Arrapaladan trikitilariak herritik; bitartean, gaztai egite, sega, ardi mozte zein Enkarterrietako Billano txakurren erakusketak, artxo txuleta dastaketea eta *Bertan lan, bertan bizi* argazki erakusketea;

13:00etan, abereen sari banaketea plazan; 19:00etan, Zuttik elektrotxarangea; 22:30ean, Argitu erromeria eta DJ Lander.

MAIATZAK 18
ARANTZAZU

Euskaraldia. 11:30ean, herri kirolak gazteentzat; 13:00etan, argazki herrikoia plazan; 13:30ean, Kahoot herrikoia hitanoari buruz, (Gazteak, 16 urtetik behera eta Nagusiak. Sariak egongo dira); 17:00etan, *Oilasko ihesa. Nuggetaren egunsentia* filma Kultur Aretoan.

ARTEA

08:45ean, gemalekuan. Jubiladuen alkarteak antolatuta Igorre-Zeanuri ibilbidea.

DIMA

13:00etan, Pettiren kontzertua Abaroan. Heldu Kulturari Dima ekimena.

18:00etan, *Erlauntza* filma eskolako kamanan.

ZEANURI

10:00etan, aire zabaleko pintura ikastaro praktikoa (plaza mugatuak).

ZEBERIO

09:00etan, Bizkaiko Xendazaletasun VIII. Ligako BBK Mendi Martxen 4. urtekerea. Murga. 13,6 km. Austarrik antolatuta.

MAIATZAK 19
BEDIA

Hilaren 30era arte, jaietan paella egunean parte hartzeako izen-emotea liburutegian.

MAIATZAK 20
AREATZA

19:00etan, jai batzordearen batzarra.

BEDIA

17:00etatik 19:00etara, Jone eta Jon Beringa tailerra liburutegian.

IGORRE

18:00etan, batzarra Ticket bai-k jaietan, txosnetan eta diru bilketetan eukiko dauan eraginaren gainean Axular Herriko Tabernan. Arratiako txosna, jai batzorde eta alkarteei deia.

MAIATZAK 22
BEDIA

17:30ean, mahai-ingurua. *De lo que hablamos: mujer, sexualidad, salud*. Liburutegian.

DIMA

19:00etan, Tautelak taldearen *Euskaldungak* antzezlan eskolako kamanan. Euskaraldia.

MAIATZAK 23
ARANTZAZU

21:30ean, Bariku rockeroak. A & H taldea Txirpugaz batera. Herriko Tabernan.

ARTEA

Pentsamendu dekoloniala eta burujabetza(k).

17:00etan, sarrerea. Onintza Odriozolaren *Ikuspegi dekoloniala Euskal Herri*tik berbaldia; 18:00etan, Claudia Gonzalez eta Mario Zubiagagaz mahai-ingurua *Burujabetza prozesuen aukerak XXI. mendean*; 19:30ean, *Feminismo*etatik *burujabetzetara* Amanda Verronegaz

Begirada dekolonial eta ekofeministak eta Elene Lopetegigaz *Gure kokaleku zuritik bazterrak arakatzen*. Herriko Bentan.

19:00etan, Kittu taldeagaz euskal kantak plazan.

BEDIA

"Elkar mugituz egingo dugu" Euskaraldiaren jaia. 17:15etik 18:45era, Panpotx Kultur Elkartearen *Ileapaindegi zoroa*; 18:45ean, parte-hartzaile guztien argazkia eta *Gure bihotzaren taupadak* kantua abestu alkarregaz; 19:00etan, *Andereño Rosita* ikuskizuna.

LEMOA

18:30ean, *Pantxitxiketan, urtaroen bidaia* umeentzako antzerkia, abestiak, jantzak eta jolasak Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

12:30ean, Alvaro Villasevil Zeanuriko medikuaren berbaldia. *Osasunaren mito eta errealtateak. Zuk zer dinozu?* berbaldia. Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:30ean, kantu-poteoa plazan. Euskaraldia.

MAIATZAK 24
AREATZA

19:30ean, Mikel Martinezen *Hamalau* eta Patxo Telleriaren *Txizatoki bat eszenalekuan* antzezlanak udaletxeko areto nagusian.

ARTEA

11:00etan, *Pentsamendu dekolonialaren behar*rizana ipar globalean. *Marxismoa, feminismoa eta dekolonialitate*a Javier Villar Fernandez eta Tania Cañas Sirianygaz; 12:30ean, *Herri libre baterako sujetu berriak* mahai-ingurua, Kinnari Ladron de Guevara eta Andoni Olariagagaz; 17:30ean, *Migrazioaren erronka eta aukerak: iragana, oraina eta etorkizuna* Txefi Roco, Mishell Gomez eta Mari Luz Estebanegaz; 19:00etan, *Espierientzi*etatik *ikasiz: proiektu antiarrazista eta komunitarioak* Jaki Toki eta Artea Sarearen eskutik; 21:30ean, Asammer Band euskal amazigh taldearen kontzertua; 23:30ean, Mangual binilo pintxadea. Herriko Bentan.

IGORRE

12:00etan, Mimintzepe proiektu agroekologikoa ezetuteko ate irekiak. Umeentzako tailerra eta mokautxoa.

MAIATZAK 25
ARTEA

11:00etan, *Hizkuntza, borroka eta nazio gatazka: euskararen aurkako oldarraldia* Idurre Eskisabel, Ibai Atutxa eta Iratxe Retolazagaz; 13:00etan, itxierea. Herriko Bentan.

13:00etan, "Elkar mugituz egingo dugu" euskereari landare landaketea Goiko parkean.

DIMA

12:30ean, Euskaraldiaren amaierako ekitaldia plazan: aurkezpena, mezuen irakurketea, jantza, kanta eta bertsoak, Euskaraldiko kantua, argazkia, txitxi-burduntzia eta trikipoteoa Merhezi taldeagaz.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Minecraft*; 19:30ean, *Sorda* Lasarte Aretoan.

UBIDE

Euskaraldiko mendi urtekerea plazatik. 11:00etan, Ubidetik Motxotegira. Tontorrean Otxandio eta Legutiotik doazanakaz alkartu eta Euskaraldiko kantua abestu.

MAIATZAK 26
BEDIA

17:00etan, Bardintasunaren aldeko zineforuma liburutegian.

begitu 450
2025eko maiatzaren 15a

MAIATZAK 27
BEDIA

17:00etatik 19:00etara, Jone eta Jon Beringa tailerra liburutegian.

18:00etan, Eleizalde jubiladuen alkarteak antolatuta, Marisa Bouzasen berbaldia *Alzheimer, ahanzturaren gaixotasuna*. Liburutegian.

MAIATZAK 28
ARTEA

17:30ean, *Larrialdiak* berbaldia jubiladuek antolatuta. Kultur Etxean.

IGORRE

20:00etan, Zinegoak jaialdiko film laburrak Lasarte Aretoan

LEMOA

18:30ean, Ane Gebara ipuin kontalariaren *Oihaneko tira-birak* Kotxepin Kultur Etxean.

MAIATZAK 29
BEDIA

Batzarrak. 17:15ean, Txiki-Txoko; 18:15ean, Udalekuak. Liburutegian.

DIMA

19:00etan, Garena jatetxean janari eta garagardao maridajea Areatza Musik & Beer jaialdia dala-ta Goiatz Duttoren musikeak lagunduta. Txartelak Areatzako Bainuetxean salgai (40 euro).

MAIATZAK 30
AREATZA

Areatza Musik & Beer jaialdia. Kontzertuak: 19:00etan, Amann and The Wayward Sons (EH); 20:30ean, Little Odetta (FR); 22:15ean, The Cinelli Brothers (EB) eta 00:15ean, Datcha Mandala (FR). Plazan.

IGORRE

19:30ean, bertso-poteoa tabernetatik. Enara Gallastegi, Iradi Barrenetxea, Aiala Irurtia eta Ekhi Zuluaga. Gai-emoilea: Malen Bilbao. Arratieko Euskera Taldea.

MAIATZAK 31
AREATZA

Areatza Musik & Beer jaialdia. Kontzertuak Kallartean-en: 13:00etan, Dirty Deep (Frantzia); 14:30ean, Bad Touch (EB); 16:00etan, Jason Kane and The Jive (AEB); 17:00etan, VIII. Munduko Kupel Jaurtiketa Lehiaketea; Kontzertuak Gudarien Plazan: 18:30ean, Arnau and The Honky Tonk Losers (EH); 20:00etan, Zalomon Gras (Galizia); 22:00etan, Burning (Espainia), 00:00etan, Bad Touch (EB) eta 01:45ean, Jason Kane and The Jive (AEB).

ARTEA

Arteako Dantzari Eguna. 11:00etan, harrerea plazan; 11:30ean, kalejirea herritik zehar; 12:00etan, jantza saioa plazan, talde konbidaua Dimako Gazte Barri; amaitzeko, Arteako Sokadantza eta jotea.

DIMA

Jentilak Diman. 18:30ean, Baltzolan hasi eta 21:00ak inguruan Indusin amaitu. Ostean Akelarrea eta txitxi-burduntzia Indusin. Baltzolaria joateko autobusak eskoletatik 17:00etan, 17:30ean eta 18:00etan. Indusira joateko autobusak plazatik 21:15ean lineakoa, 22:00etan, 23:00etan eta 00:00etan.

LEMOA

Arratiako Guraso Elkarteen IV. Topaketea. Ibilbidea, bazkaria, jolasak, musikea, jantzea...

UBIDE

Ubidestroi Trail. 09:00etan, 28 km-ko lasterketea; 10:00etan, 20 km-ko lasterketea Plazatik. Goizean zehar, puzgarriak, txosnea eta talogileak; 15:30etik 18:30era, elektrotxarangea; 17:00etan, Ubidestroitxo umeen lasterketea 1,6 kilometro.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK
BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA
Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz homiduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

LOGELA BILA
Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gixienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

SALTZEAN DODAZ
Lowepro argazkilaritza motxila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoirako. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

EMOTEN DOT
56 m³ lur eta obra-hondakin eskaintzen da betegarria egiteko doban, eroatea barne. Interesdunek 607 482 499 telefonora deitu.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN
Pisu konpartidu baten, persona bakar batentzako gela bat behar dot alokairuan.

Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT
Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Kontatuko telefonoa 630 363 971.

LANA
IRAKASLE BILA
Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bateri matematika emongo deusn irakaslea topetan nabil. Interesdunek deitu edo bialdu mezua 658 727 613 telefonora.

IRAKASLE BILA
LH 5. mailako ikasle bateri ingeeseke klaseak emoteko irakasle bila gabiz. Interesdunek deitu edo idatzi 637 861 936 telefonora.

BEHARGINA BEHAR DOGU
Interna moduan lan egiteko persona bat behar dogu, Soziosanitario tituluduna. Interesdunek deitu 685 704 440 edo 635 207 386 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1
Areatzako Udalak emondako Dolu bat eta doli bi liburuaren ale bana.

Amaia Salcedo (Zeberio)
Juanma Labandibar (Artea)



2
Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Patxintxiketan, urtaroen bidaia umeen antzezlanerako.

Eingo eskolea (Igorre)
Ainara Olazabalaga (Bedia)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



Ipini zure iragarkia Begitun 649 979 115 inigoirua@begitu.eus





EUSKARALDIARI
HASIERA EMOTEKO

Maiatzak 15
19:30ean Gau Loran hasite:
HERRIKO TRIKITILARIAK
ibiliko dira kaleak animatzen

Maiatzak 16 
16:00-21:00 Lasarte parkean:
Euskaraldiari buruzko
IHES GELA



*Elkar mugituz
egingo dugu*







Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA
4 URTETIK AURRERA ETA ADIN MUGARIK GABE

 **Matrikulazioa ONLINE**
www.arratiakomusikaeskola.eu

*** INFORMAZIOA:**
- Web gunean
- Astelehen eta asteazkenetan
10:00etatik - 13:00etara
- Astearte eta ostegunetan
15:00etatik - 18:00etara

Telefona: 94 631 73 52

 **MATRIKULA**
Epea: maiatzean